



Sansaastin deia

Lakuntzako neguko festak, larunbatetik astelehenera / 12 / 24

Desberdintasunen diagnosia

Nafarroako Gobernuak despoblazioa aztertzeke txostena eman du / 2-4

Herritarren etxebizitza premia ezagutzeko Arbizuko Udalak galdetegia zabaldu zuen / 11

San Antonen omenezko kofradietako kideak asteburuan elkartuko dira / 12

Paris 365 jangela sozialaren aldeko asteburua hartuko du Irurtzongo Iratxo elkarteak / 10

Igor Arrietak junior mailako Espainiako Ziklo-kros Txapelketa irabazi zuen Pontevedran / 15

Olga Garziandiak Munduko Biatloi Txapelketan parte hartuko du, Suitzako Lenzerheiden / 19

Arte garaikidea Nafarroan zabaltzeko 'Uholdeak, mahaira' erakusketa mustu dute lortian / 22

Ehun bat ikaslek eta Dantzaz konpainiak 'Esclavos felices' ikuskizuna egingen dute, gaur, lortian / 23

GRADUATUTAKO BETAURREKOETAN

2x1

% 50 ECUZKITAKO BETAURREKOETAN

Sakanaoptika
optometriak - audimetriak - kontaktuak

Inkestak etorbidea 10 • 31000 Altasu
948 563 124 www.optikasakana.com



Jendea elkartu zen Lizarragako ostatuaren mustutze egunean. ARTXIBOA

Desberdintasunei begirada

Nafarroako Gobernuak makina bat datu ematen dituen txostena argitaratu du, despopulazio prozesuei aurre egiteko proiektio gisa balio dezaketenak, etorkizuneko politikak garatzeko. Sakanari buruzko hainbat datu jakingarri jaso ditu

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Eskubide Sozialetako Departamentuko Errealitate Sozialaren Behatokiaren eta Gizarte Politiken Plangintzaren eta Ebaluazioaren Zuzendaritza Nagusiak "Nafarroako lurralde-desberdintasunen diagnostikoa: erronkak eta proposamenak" txostena argitaratu zuen astelehenean. Lan horrek Nafarroako eskualdeetako lurralde-, demografia-, lan-, gizarte- eta lehiakortasun-desberdintasunak aztertzen ditu. Azterketa gizartearen aldetik hiru desberdintasunetan oina-

rritu da: despopulazioa, enplegua eta gizarte-politikak. Hala ere, desberdintasunean alderdi gehiegok hartzen dute parte.

Nafarroako eskualde batzuen despopulazio-prozesuek eragin erabakigarria izanen dute haien etorkizunean eta erronka berrietara egokitzeko duten benetak gaitasunean. Zenbait eskualdek, oraingoz, nolabaiteko kanpo-monitorizazioa eskatuko dute, haien gainbehera saihestu nahi badugu, eta horrek ekar litzakeen ondorio kolektiboak, ingurumenekoak eta gizarte-

kohesiokoak saihestu nahi baditugu.

Lurralde eta demografia mailako desberdintasunak

Nafarroa biztanleria-gune batzuen arabera egituratzen da, Iruña eta Iruñerria (Nafarroako populazioaren % 54,1 2018an) eta eskualdeetako buruak nabarmentzen dira. Azken horiek, batik bat komunikazio-ardatz estrategikoekin lotuta daudenak eta garapenari eusten diotenak. Neurri batean, ardatz horietan aurkitzen ez direnek dituzte

lurralde-mailako ahultasun gehien. Esaterako, Irurtzun, Altsasu eta Olatzagutia erregio kudeaketa gune gisa hartzen ditu azterketak, eta Lakuntza, Arbizu eta Etxarri Aranaz, berriz, azpierzumuko egituraketa gune gisa. Nafarroan "halako polizen-trismoa" dago.

Sakanaren geografia-kokapena nabarmentzen dute. Sakandarren % 17,8ak du egituraketa gune gisa hartzen den herriren bat bost minutura, Nafarroako batz bestekoaren (% 19,6) azpitik ia bi puntu.

Nafarroan biztanleriak gora egin badu ere, "badira ahulagoak diren eskualdeak". Sakanaren populazio dentsitatea Nafarroakoaren parekoa izan zen 2018an, 66,1 biztanle km²-ko eta 67,4. Europar Batasunaren arabera, despopulazio-arriak kilometro karratu bakoitzeko 12,5 biztanleko dentsitatea dagoenean gertatzen da. Sakanan Ergoiena maila horren oso azpitik dago, km²-ko 8,9 pertsona besterik ez baitira bizi. Despopulazio-arriku maila horretatik gertu daude Arakil (17,82) eta Arruazu (19,19).

Landa eremuak husteak hainbat eragin dakartza berarekin. Ekonomia ikuspegitik lehen sektorea desagertzea eta zerbitzuak murriztea. Aldi berean, historia- eta arte-ondarearen segurtasuna galtzen da. Ingurumen eraginen artean daude baso suteak handitzeko aukera eta erabileren aldaketagatik paisaiainpaktua sortzea. Horrekin batera, populazio faltagatik gizarte zerbitzuak murriztea. Aldi berean, udalak bi aukerekin gelditzen dira: zerbitzuak mankomunatzea edo haiek galtzea. Populazio galeraren azken ondorioak kulturarekin, erabileren eta ohituren galerarekin zerkusua du.

Nafarroako landa eremua husteko eta hura zaurgarri bihurtzeko arrazoiaren oinarria desberdintasunak dira. Nafarroaren lurralde egituraketa eta aukera berdintasuna bermatzeko sareko polizentrismoa garatzea ego-

ki jotzen dute azterketan. Horretarako, kontuan hartu beharreko elementuak zerrendatzen ditu: enpleguaren sorrera deszentralizatua, landa eremuetako bizigarritasuna sustatu eta zerbitzuak hobetzea, komunikazioak eta konektagarritasuna hobetzea, ikastetxeak eta teknologia zentroak hedatzea, baliabide endogenoak baliatzea, sareko kooperazioa eta eskualdeko estrategiak lantzea. Horrekin guztiarekin batera, "aparteko garrantzia dute komunikazio eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (IKT) azpiegiturak".

Landa eremuek aurrera egiteko smart villages edo herri adimendunak ekimena sustatzea proposatzen du txostena. Horiek "erresilientzia hobetzeko konponbide berritzaileak erabiltzen dituztenak, tokiko indarguneak eta aukerak aprobetxatuz. Parte hartzeko ikuspegian oinarritzen dira, beren baldintza ekonomikoak, sozialak edota ingurumena hobetzeko estrategia garatu eta ezartzeko, bereziki teknologia digitalek eskaintzen dituzten soluzioen mobilizazioaren bidez. Herri adimendunak landa eta hiri eremuetan aritzen diren beste komunitate eta eragileekin lankidetzan eta aliantzak eginez baliatzen dira. Estrategien hasiera eta ezarpena lehendik dauden ekimenetan oinarritu daiteke, eta iturri publiko eta pribatu ugariren bidez finantzatu daiteke".

Zahartzeaz

Gizartea gero eta gehiago zahartuko da heldu diren urteetan. 2018an sakandarren % 20,8k 64 urte baino gehiago zituen, % 23,2 emakumezkoa eta % 18,5 gizonezkoa (Nafarroan % 19,5, % 21,7 eta % 17,4). 2037rako nafarren % 25 65 urte baino gehiago izanen dituela. 2018an Nafarroako zahartze indizea (64 urtetik gorako herritarrak zati 15 urte beherakoengatik) % 124,9koa zen Sakanakoa, berriz, % 134,5koa. Gehiagi zahartzeari buruzko indizea (85 urte edo gehiagoko herritar kopurua zati

EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Etxe pasiboetarako egokia
s 9000

Isolamendu nukleo indartsua

Beirak lehorrean jarrita

Aparteko azala koloreztatua

64 urte eta gehiagokoak) Nafarroan % 17,7koa da eta Sakanan % 18,6koa. Senilarekiko mende-kotasun-indizea (64 urte baino gehiagoko populazioa zati 15 eta 64 urte arteko populazioa) Nafarroan % 30,1ekoa da, Sakana-koa, berriz, % 32,6koa. Zahartze datu handienak dituzten eremuak bat datoz despopulazio maila handiena dutenekin. Bestetik, jaiotze tasa txikia izateak Nafarroako demografiak "etorkizun oso konprometitua" izatea eka-rriko du.

Zahartzeak kultur eta gizarte ohiturak dakartza, zahartze aktiboa eta bere eskubideak aldarrikatzen dituzten adinduak, ekonomia eta kultura baldintza hobek dituztenak. Aldi berean, adinduak familietan zaintzeko joera aldatzen ari da eta, azterketaren arabera, gizarte eta osasun premia berriei aurre egitea ekarriko du. Biztanleria gero eta zaharragoa izatearen ondorioz, gizarte eta osasun beharrak handituko dira. "Are gehiago osasun eta ekonomia baldintza hobek etxean egoteko denbora luzatzen dutenean. Hori guztia inbertsio sozial gisa hartu behar da".

Europar Batasunetik bideratzen diren politiken asmoa da IKTEk Gizarte eta Osasun Laguntzaren kostuen igoera jasagarri egitea, eta, era berean, pertsonen bizi-kalitatea hobetzea. Horretarako, arreta egokia emanen duen zain-tza jarraiturako sistemak gara-zea, zaintzaz arduratzen diren familiako kideendako babesa hobetzea, heriotza duina izateko zainketa aringarriak eskaintzea eta jarduera eta espazio lagun-garriak sustatuz adinduak gi-zartean integratzea.

Euskarri biztanleria (40 eta 54 urte bitarteko pertsonak) da bizi den eremuko egitura sozial, demografiko eta ekonomikoa jasan-ten duena, ekonomia sortzen duena eta, era berean, seme-alaben eta adinduen zaintza bere gain hartzen duena. Nafarroan oraindik ere adin-tarte hori han-ditzen ari da, baina aurki demo-grafian pisua galduko du eta adinduen multzora pasako dira. Nafarren % 24 euskarri biztan-leria zen 2018an, Sakanan, % 23,4. Adin bitarteko horretako pertsonak egotearren menpe dau-de landa eremuen hazkundera eta garapena.

Generoari erreparatuta, Nafarroako euskarri biztanleriaren % 51,2 gizonezkoa zen eta % 48,8

emakumezkoa. Sakanan, berriz, % 54,2 eta % 45,8koa. Azterketan diotenez, "landa-inguruneen kasuan, maskulinizazioa erreali-tatea bada, euskarri biztanleria-ren kasuan prozesu hori askoz nabarmenagoa da. Emakumez-koak haien bizitza aktiboa eta lan-bizitza egitera profesionalki garatzeko aukera hobeak eskain-tzen dizkieten tokietara joan dira".

Migrazioa

Migrazioa beste faktore eraba-kigarria da gure udalerrietako egitura demografikoak osatze-rakoan. "Migrazio ekonomikoa da batez ere, eskualdeen sozioe-konomikoa eta ekoizpen oinarriak populazioa erakartzeko ezinbesteko eragilea da". Nafarroako populazioaren % 14,3 atzerrian jaiotakoa da, ibarrekoa, berriz, % 9,5ekoa. Haietatik % 38,9 Euro-par Batasunekoak dira, % 1,9 gainontzeko Europako herrialde batekoak, % 32,9 Magrebe-koak, % 7,6 Afrikakoak, % 15,9 Latinoamerikakoak eta % 2,4 beste herrialdeetakoak.

Azaldu dutenez, "demografia txikien duten eskualdeetara mi-gratzaile gutxiago joaten da". Eta gaineratu dutenez, "kultura-jatorriek eta kokalekuek gero eta eragin handiagoa izango dute gizarte-kohesioan". Migratzaile "gehienak hemen geldituko dira, familiak osatuz eta euren bizi proiektuak bertan garatuz".

Horregatik, hainbat erronka zehaztu dituzte txostengileek: enplegurako sarbidea (langabe-

zia tasa handiagoa dute, presta-kuntza txikiagoa, prekarietate handiagoa, pobrezia maila han-diagoa...), Ongizate Estatuko tresnak eskuratzeko aukera (haur pobrezia handiagoa, etxebizitza kalitate eskasagoa, hezkuntza emaitza kaxkarragoa, ikastetxe jakinetan kontzentratzea...), ekonomia eragina (ekonomia hazkundera ekarpena, euren lanpostuak ekonomia zikloi sentsibleagoak dira, mende-kotasuna duten zaintzaile dira...) eta gizarte bizitzako parte-hartzea (migrazioa ez da bertakoen kez-ka nagusia, haiekiko estereoti-poak, politika parte-hartze txi-kiagoa...).

Baina migratzaileak ez dira bizitokiz aldatzen duten bakarrak, jendea ikastera edo lanera joaten baita. Edota jubilatutako ondoren sorterrira. Badira aisialdiagatik, turismoagatik edo osasunagatik bizitokiz ere aldatzen dutenak. Mugikortasun horregatik biz-tanleak irabazten ditu Iruñerriak. Sakanara 2018an 708 pertsona etorri ziren (Nafarroako mugi-kortasunaren % 1,44) eta 654 ibarretik joan ziren (% 1,33). Azterketaren egileek mugikor-tasun horren atzean ere landa eremuaren maskulinizaziorako arrazoiak ikusi dituzte. Izan ere, emakumezko gazteek eta adin ertainekoek hezkuntza maila handia dute eta eskualdean la-nari dagokion aukera berdinta-sunik ez dute. 2018an Sakanaren maskulinitate indizea 105,5ekoa zen, Nafarroakoa 98koa.

Sakanako populazio dentsitatea (2019)

	Biztanleria	Azalera (km2)	Dentsitatea
Altsasu	7.443	26,805	277,67
Arakil	933	52,36	17,82
Arbizu	1.104	14,304	77,18
Arruazu	110	5,733	19,19
Bakaiku	362	11,7	30,94
Ergoiena	372	41,811	8,90
Etxarri A.	2.483	33,021	75,19
Irañeta	172	8,396	20,49
Irurtzun	2.233	3,522	634,01
Iturmendi	403	9,909	40,67
Lakuntza	1.279	11,033	115,92
Olazagutia	1.489	19,617	75,90
Uharte A.	805	37,941	21,22
Urdiain	653	15,081	43,30
Ziordia	348	14,389	24,19
Sakana	20.189	305,622	66,06



Irurtzungo azokan erosketak egiten. ARTXIBOA

Eskualdearen arabera enplegu ezaugarriak aldatzen dira

Eskualde bakoitzak demografia eta produkzio-espezialitate desberdinak ditu eta, ondorioz, enplegua

Alfredo A.I. SAKANA

Txostengileek diotenez, "krisiak eta handik ateratzeak eskualde bakoitzaren ahulguneak eta indarguneak agerian utzi dituzte. Sakana bezalako eskualdeetan, manufaktura-industria tradizio-nalki jorratu den lekuetan, en-plegua asko berreskuratu da azken urteetan. Hala ere, ia erabat industria-sektorean oi-narritu da, eta hori maskulini-zatuta dago neurri handi batean".

Nafarroako gizartea urtetsua da, eta biztanleria aktiboa na-barmen jaitsi da; 59,09koa da eta Sakanakoa 56,57koa. Aurrei-kuspenak egiteko biztanleria aktiboaren ordezkapen-indizea-ri erreparatu behar zaio. Adie-razle horrek kontuan hartzen du aurki jubilatutako behar den biztanleria (60 eta 64 urte bitar-tekoak) eta lan merkatura sar-tuko dena (20 eta 24 urte artekoa). Indize hori Nafarroan % 85,4koa da eta Sakanan % 74,2koa.

Txostengileek gaztigatu dute-nez, "genero kontuetan lan-mer-katuko desberdintasun iraun-korraren ebidentzia" dira bildu-tako datuak. "Gizonezkoekin alderatuta emakumezkoen pre-sentziak lan merkatuan eskasa izaten segitzen du". Demografia dinamikengatik aparte, bi arra-zoi eman dituzte: historikoki emakumezkoen bizkar izan den pertsonen zaintza (ordaindu gabeko lana) eta lanerako adinean dauden emakume askok enple-gu bat nahi, opatu ez eta langa-betu gisa bukatzen dutenak. Horiek horrela, lana opatzeko

"emakumezkoek zailtasun gehia-go izanzen dituzte, are gehiago zaharkitutako inguru batean".

Hala, Nafarroan 16 eta 64 urte arteko 100 gizonezkoetatik 63,44 aktiboak dira (langabezian edo lanean daude; emakumezkoak, berriz, 54,88. Sakanaren kasuan gizonezko aktiboak 60,32 dira eta emakumezkoak 52,56. Gene-roari erreparatuta krisiaren ondoren, tasak parekatutako jotzen ari dira Nafarroan. Baina txos-tena egileak harritu egin dira Sakanan ematen delako langa-betuen generoen arteko alderik handiena (2018an): guztira % 10,99ko langabezia tasa, gizonez-koena % 7,48koa da eta emaku-mezkoena 15,3koa. 7,76 puntuko aldea. Nafarroan langabezia % 10,3koa da, gizonena % 9,09 eta emakumezkoena % 11,09.

Sakanako langabezia-tasa Na-farroakoaren batz bestekoa baino handiagoa da alderaketa-rako aukeratutako hiru urteetan. Baina gaur egunera zenbat eta gehiago gerturatu bien arteko aldea txikitzen ari da.

Azterketan jaso dutenez, 2019ko lastailean nafar langabetuen kopurua aurreko hamarkadako baino % 16,3 handiagoa zen. "Sakanan ere krisiak eragin handia izan zuen, eta 2008. urteaz geroztik langabezian zeuden pertsonen kopurua % 17,5 igo zen, baina azken urteotako sus-pertze handienarekin batera, langabezia-tasa % 10,8 jaitsi da". Baina "berezik deigarria da duela gutxi enplegu asko berres-kuratu den eskualdean, emaku-

meen langabezia handiagoa izatea, % 61,6. Era berean, Sakanan 55 urte edo gehiago dituzten langabeen bigarren ehuneko altuena dago (% 29,5); Nafarroan, berriz, % 24,8 dira". Oinarrizko hezkuntza duten langabetuak Nafarroan % 70,4 dira, Sakanan % 64,9. Iraupen luzeko langabeziari dagokionez, ibarrean 2019an % 33koa zen erkidegoan, berriz, % 34,6koa.

Eskualdeka ere enplegua desberdina da Nafarroan. Erkidegoko enplegu tasa 53,17koa da, eta ibarrean 50,35koa dugu. Aurreko guztia kontuan hartuta, ez da harritzekoa eskualde bakoitzaren enpresa garapenean eragina izatea. "Populazio dentsitate handiagoa dago enpresa kontzentrazio handiagoak dituzten eskualdeetan eta egiturazko guneetan". Sakanan 2019an 1.155 enpresa zeuden foru erkidegokoen % 3,08. Baina 2013 eta 2019n urteen artean % 6,1 enpresa gutxiago zeuden ibarrean, denbora tarte berean Nafarroan % 2,1eko hazkundera izan zen. Erkidegoan egoitza duten enpresei erreparatuta, Sakanan industria % 14,6 da, eraikuntza % 12,8, merkataritza % 24,6 eta zerbitzuak % 48. Nafarroan, berriz, % 9,1, % 11,7, % 23,1 eta % 56 da. 2019a 2013koarekin alderatuz gero Sakanan industria enpresen % 20,3 galdu da, eraikuntza enpresen % 26,7, merkataritzaren % 6,9 eta zerbitzuen % 8,4.

Industriak Gizarte Segurantzaren afiliazioan duen pisuari erreparatzen badiogu, Nafarroan % 23,3koa den bitartean Sakanan 36,3koa da. Nekazaritzako elikagaien industriaren kontratazioaren pisua Nafarroan % 12,5koa da; gurean, berriz, % 6,1koa. Nafarroako eskualde guztietan egiten diren kontratu gehienak aldi baterako dira.

Horri aurre egiteko proposamenak dira: balio erantsia duten jarduera berriak sustatzea enplegu galera handiena duten eskualdeetan, gehiegi espezializatutako eskualdeen dibertsifikazioa erraztu, enpresa garapena sustatzeko ekintzailatza eta Gizarte Ekonomia bulkatzea, eskualdeen arteko elkarlana sustatu eta haien arteko lehia-kortasuna txikitu, eskualdearen ekonomia garapenaren beharretarako pertsonak egokitzeko baliabideak jartzea eta tokiko enplegu baliabideak indartu eta egokitu.



Altsasuarra Zumalakarregi plazako estalpean. ARTXIBOA

Gizarte desberdintasunak ere badaude

Beste erkidegoekin alderatuta, Nafarroak tradizionalki pobrezia indikatzaillean maila baxua du. Baina foru erkidegoko eskualdeen artean desberdintasun nabariak daude. Nafarroako pobrezia arriskuaren tasa % 21,71ekoa zen 2017an, Sakanakoa % 17,30

A.A. I. SAKANA

2008 eta 2017 urteen artean Sakanako etxeko errentaren batz bestekoa Nafarroakoaren parekoa zen, 32.910 euro eta 33.106 euro; 2008tik 2017ra ibarreko etxeko errenta maila % 5 igo zen, foru erkidegokoa % 5,6 jaitzi zen bitartean. Jakina, eskualdeak zenbat eta etxeko errenta maila baxuagoa izan, orduan eta handiagoa da pobrezia arriskua. Horri gehitu behar zaio lanpostuen tipologia eta migrazioaren presentzia.

Pobrezia arriskuak Gizarte Zerbitzuen erabiltzaileen kopuruan du isla. Sakana hartzen duen ipar-mendebaldean harre- eta gizarte orientazio programan % 10,7 pertsona zeuden 2018an (Nafarroan % 9,91), norberaren autonomian sustapena eta dependentziarako arreta programan % 1,21 zeuden (% 0,53), haurrei eta familiei arreta programan % 5,8 (% 6,22) eta gizarteratze programan 2017an % 4,51 (% 7,05).

Bestalde, oro har, krisia hasi zenetik kotizaziopekoak ez diren prestazioek gora egin dute, kotizaziopekoak baino gehiago, eta prestazio guztien % 28 izatetik % 40,6 izatera pasa da. Iraupen luzeko langabeziaren hazkundeak berekin dakar, ezinbestean, lehenik, kotizaziopeko prestazio agortzea, eta, ondoren, kotizazio gabeko prestazioak, gizarte-bazterkeriaren arrisku argian dau- den pertsonen kolektiboa sortuz. Horregatik, Bermatutako Errentak garrantzia hartu du, nahiz eta langabezia jaitzi. 2016 eta 2019 urteen artean nafarren % 6,9 uneren batean jaso zuten, Sakanan % 4,5 izan zen. Pobrezia-aren feminizazioa ere badago. Sakanako Errenta Bermatuko hartzaileen % 52,2 emakumezkoak ziren eta % 48,8 gizonezkoak, Nafarroan, berriz, % 52,7 eta % 47,3.

Langabeziaren aurkako babes
Enplegua izateak dagoeneko ez du bermatzen zaurgarria ez iza-

tea. Baina bazterketa egoera gehienak langabeziari lotutakoak izaten segitzen dute. Horregatik dute garrantzia langabeziaren kontrako babes neurriak. Azterketak agerian uzten du Nafarroak estaldura baxuena duen erkidegoetako bat dela (% 54,2koa estatukoa % 61,8koa denean), eta 15.425 langabe nafar estaldurarik gabe daudela. Babes hori eskualdeen arabera aldatu egiten da. Sakanan 2019an langabeziagatik babesak zuten langabeak % 55,8 ziren eta babesgabeak % 44,2; Nafarroan % 49,3 eta % 50,7.

Gizonezko sakandarren % 57,8k langabezia-estaldura du, emakumezkoen kasuan % 54,4 (Nafarroan % 53 eta % 46,8). Adi-

2003 ETA 2019 ARTEAN BAKARRIK BIZI ZIREN SAKANDARREN ETXE KOPURUAK % 54,4 EGIN DU GORA

nari erreparatuta, 24 urte baino gutxiago duten gazte langabe sakandarren % 17,2k besterik ez du langabezia-estaldura (Nafarroan % 22,5). 25 eta 39 urte artekoen langabezia estaldura % 54,7koa da (% 45,2), 40 eta 54 urte artekoena % 45ekoa (44,8) eta azkenik, 55 urte edo gehiagoko sakandarren langabezia estaldura % 82,1ekoa da (% 70,5).

Mendekotasuna eta zahartzea

Desgaitasuna Nafarroan % 5,3koa da (34.639 pertsona) eta Sakanan % 5,9koa (1.195 pertsona). Desgaitasuna duten pertsonen adinari dagokionez, Sakanan % 43,5 33 eta 44 urte artean dituzte (Nafarroan % 41,5), 45 eta 64 urte artean % 17,2 (% 17,1), 65 eta 74 urte artean % 20,9 (% 22,8) eta, azkenik, desgaitasuna duten 75 urte baino gehiagoko sakandarren % 16,4 dira (% 18,5).

Nafarroan, eta Sakanan, populazioaren % 2,5ek ofizialki aitortua du mendekotasun mailaren bat. 75 urte edo gehiago eta mendekotasuna dute sakandarren % 17 dira (Nafarroan % 18,4). Adin horietan mendekotasunak ere emakumezko aurpegia du Sakanan % 21,3, eta gizonezkoak % 11 (foru erkidegoan % 21,8 eta % 13,2).

Nafarroako etxebizitzaren % 27,6an pertsona bakarra bizi da, % 14,5 emakumezko eta % 13,2 gizonezkoak. Bakarrik bizi dira sakandarren % 28,6, haietatik gizonezkoak % 16 dira eta emakumezkoak % 12,6. 65 urte edo gehiago izan eta bakarrik bizi diren nafarrak % 11,3 dira, haietatik % 7,8 emakumezkoak eta % 3,6 gizonezkoak. Adin tarte horretan sakandarren % 12,1 bizi da bakarrik, haietatik % 7,6 emakumezkoak eta % 4,5 gizonezkoak. Eta 80 urte edo gehiago izan eta bakarrik bizi diren nafarrak % 5 dira, % 3,9 emakumezko eta % 1,1 gizonezko. Sakanaren kasuan, adin horretan bakarrik % 5,6 bizi da bakarrik, % 4,2 emakumezko eta % 1,5 gizonezko.

Pertsona bakarrek etxebizitzak gora egiten duten bitartean, jendea bizi diren etxeen kopuruak behera egiten duen garaian. Sakanan 2018an 10.476 etxebizitza zenbatu zituzten eta haietako 7.726 bizi zen jendea, 1,36ko ratioa (1,32). Bestalde, Sakanan etxebizitza nagusiak ez direnak % 31,7 ziren 2018an (% 29,5). +www.guaixe.eus



ASTEKOA

AIINGERU MIKEO

Makina bat ikusteko jaioak!

20. hamarkada berrian sarturik garelakoan, zer berri ekarriko ote digu? Atzera begiratzuz gero, ez dira batere makalak bizpahiru hamarkadatan izan ditugun aldaketak. Hainbeste, non batzuetan zaila egiten baita imajinatzea ere nolakoa zen aurreko bizimodua. Horietako batzuk gogora ekarrita, hor daude merkatuen globalizazioa eta merkataritza gun handiak, pezetaren ordeztua, euroa, madeintxinako produktuak, etorkinak geroago migranteak, enpresen deslokalizazioak, mileuristak eta langile prekarioak, autobideak eta pantanoak, teknologiaren jauzia eta kontsumismo ergelaren sukarra. Horrela, denbora gutxian, alde batetik, kontsumismorako aukerak eta Interneten, GPSren eta mugikorraren garapenak supermoderno eta aurreratuak izatearen ustea ematen digute, baina, bestetik, ikusten ari gara gure planeta lurra erabat kutsatuta eta sarraskitua dugula eta klimaren aldaketa egitate gordina dela. Hain zuzen ere, Nafarroako aztarna ekologikoaren indizearen arabera, kontsumitzen duguna orekatzeko Nafarroak duenaren halako 1,62 lur azalera beharko genuke.

Beste aldetik, gizarte arloari dagokionez, ETaren desegitea ikusi dugu, euskarak pauso sendoak eman ditu, feminismoaren borroka olatu handia hartu du, eta Nafarroan eta baita Estatuan ere, gobernu "aurrerakoiak" izanen ditugu, nahiz eta muturreko eskuindarren mehatxua ere indartsu sortu den.

Hamarkada berrirako, "adituek" datorrenaren zertzeladak aurreratu dituzte. Esate baterako, osasun arloan, kontsultak bideokonferentziaz egiterik izanen omen da. Feminismoak gogor borrokatuko du pornografiaren eta prostituzioaren arloko industria kriminala. Nazionalpopulismoak gaitututa, Europak erabaki sendoak hartuko omen ditu klimaren, migranteen eta beste hainbat konturen gainean. Teknologiari dagokionez, adimen artifiziala izugarri garatuta, pertsonen zerbitzurako makina adimentsuak sortuko omen dira. Eta horrela beste hainbat.

Hori entzunda, dagoeneko imajinatzen hasia naiz gatazka gaitututako Euskal Herria, Nafarroa burujabe eta berdea, eta krimen matxistarik gabeko gizartea. Hala ere, zaila egiten zait elektronika eta adimen teknologiaren aurrerapenen abiadurara moldatzea, hau da, ez dakit txakurra paseatzera aterako duen erroto androidea asmatuko duten, ala txakurra ordezkatzeko duen txakurdroidea paseatzera atera beharko dugun.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NAN zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Tren geltokien itxieraren aurrean, mobilizazioak

SAKANA TRENAREN ALDE AHTRIK EZ PLATAFORMA

Urte hasierarekin, Nafarroan hiriburuetatik kanpo geratzen ziren azken tren geltokien leihatilen itxieraren berria izan dugu, hau da, Castejon, Tafalla eta Altsa-sukoak. Trenak gure erkidegoan dagoeneko murrizketa ugari jaso baditu ere, beste batekin datoz oraingoan, Abiadura Handiko Trena azkenik eraikiko balitz zain dugunaren isla delarik: tren arruntaren behin betiko bukaera.

Hauxe baita AHT martxan dagoen beste erkidego batzuetan gertatzen ari dena, ibilbide luze-ko eta eskualdeko zerbitzu guztiak

AHTrekin ordezkatzan dituztela, eta betiko trenbidea bakarrik merkantziak eta aldiriko trenak igarotzeko uzten dituztela, eta hori mantentzen dituztenean... Era horretan, bukaera ematen zaio lurraldeak lotzeko garrantzitsua den zerbitzu bati, baita garraio mota jasangarriagoa eta ingurumen-inpaktu gutxiagokoa erabiltzeko aukerari ere.

Trenaren bidezko garraiolarako uzten duten aukera bakarra AHTrena da. Lur tona askoren mugimendua eta tunel eta biaduktu anitzen eraikitzea eskatzen duen proiektua, hots, izugarri-ko ingurumen-inpaktukoa, gure

lurraldeetan lubaki berria sortaraziz. Hori gutxi balitz, eraman behar duen abiadura lortzeko energia kontsumo askoz handiagoa behar du.

Honenbestez, AHTren aurka-ko mugimenduak azpiegitura honen inposizioan beste pausu berri bat suposatzen duen albiste honekin gure arrangura adierazten du. Tren arruntari dagoeneko murrizketa hauen atzean dagoena, garraio eredu kutsagarri, ingurugiroarekiko suntsitzaila eta ekonomikoki jasan ezina denaren inposizioa baita. Horregatik guztiagatik, gizarteari tren arrunta defendatzeko eta AHTren aurka borrokatzeko antolatzen diren mobilizazio guztietan parte hartzeko deia egiten diogu, adibidez urtaril bukaeran eta otsailean plataformak egingo dituenak.

OBJEKTIBOTIK



Arruazuko populazioa 10 aldiz igo genuen aurreko astean

Zuzenketa

Aurreko astean azalean Sakanako biztanleriaren aldaketaren berri ematen zuen grafikoa argitaratu genuen, baina bost herrietako datuak ez ziren zuzenak. Hona ibarreko

populazioari buruzko 2019ko datuak.

Lizarragabengoa, Etxarri Arantzen udalerriaren barruan kokatzen dela ere argitu behar dugu.

Herria	2019	2018	±	%
Altsasu	7.443	7.407	36	0,49
Arakil	933	949	-16	-1,69
Arbizu	1.104	1.124	-20	-1,78
Arruazu	110	106	4	3,77
Bakaiku	362	345	17	4,93
Ergoiena	372	384	-12	-3,13
Etxarri A.	2.483	2.503	-20	-0,80
Irañeta	172	176	-4	-2,27
Irurtzun	2.233	2.209	24	1,09
Iturmendi	403	382	21	5,50
Lakuntza	1.279	1.272	7	0,55
Olatzagutia	1.489	1.497	-8	-0,53
Uharte A.	805	805	0	0,00
Urdiain	653	675	-22	-3,26
Ziordia	348	361	-13	-3,60
Sakana	20.189	20.195	-6	-0,03

ITURRIA: WWW.INE.ES

guaixe
SAKANAKO ATEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:
GK, Ainhoe Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administratzailea:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Felix Alzelai

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Merkantzia tren Hiriberritik pasatzen. Urrunean, Irurtzun. ARTXIBOA

Sustrai: "AHTk ez ditu merkantziak garraiatuko"

Sustrai Erakuntza fundazioak egindako txostenak ondorio hori utzi du. "Gaur egungo trenbidetik bidaiariak eta merkantziak eramaten dira, eta hori potentziatu behar dela uste dugu"

SAKANA

Abiadura Handiko Trenak (AHT) bidaiariak eta merkantziak garraiatzeko balioko duela diote azpiegitura hori sustatzen duten erakundeek eta alderdiek. Sustrai Erakuntza fundazioko kide Martin Zelaia dioenez, "hauteskunde guztietan gai hori propaganda gisa agertzen da. Estatuan AHTko trenak ez dute merkan-

tziarik garraiatzen. Nafarroan egiten ari direnarekin hainbat puntutan arazoak izanzen dira".

Estatuan tren bidez merkantzien % 4,6 inguru garraiatzen da eta Europaren batz bestekoa % 18koa da. Nafarroan, berriz, trenbide bidez merkantzien % 1,2 besterik ez da eramaten. Klima larrialdiak eta erregai fosilen agortzeak trenbidea merkan-

tziendako aukera egokia bihurtzen dutela gaztigatu dute fundazioetik. Egun Sakanatik pasatzen diren merkantzia trenak gehienez 500 metro dituzte (550 baimen bereziarekin). AHTrekin "500 km-ko ibilbideetarako luzera optimoa 675 metrokoa litzateke".

Zelaia nabarmendu duenez, "soilik bidaiariendako tren ereduak sustatzen ari dira AHTrekin,

ohiko trenbidearen kaltetan, bere azpiegitura mantentzea falta delako, eta zaharkitzen ari delako. Hala ere, ohiko trenbidea da lurraldea egituratzen duena, merkantziak eta bidaiariak garraiatzen dituen, eta landa- eta hiri-guneei zerbitzua ematen diona". Gaztigatu dutenez, merkantziak garraiatuko litzkeen AHT bat eraikitzea % 30 garestiago litzateke, irizpideak askoz zorrotzagoak baitira.

Teknika arazoak

Trenak elkarri aurreratzeko, bat gelditu eta bestea pasatzeko, plataformak egiten dira AHTko ibilbidean. Halako gune bat Arbizu parean egitea aurreikusi dute. "Halako hainbat egin beharko litzukete". Zelaia gaztigatu duenez, merkantziak eta bidaiariak eramaten dituzten bi tren gurutzatuko balira, "bat azkar doa, bestea mantoago, hainbat haize korrante sortzen dira eta mugimenduak eragiten dituzte; autoak kamioia aurreratzen duenean bezala. Konponbide bakarra da gurutzatzerakoan bidaiarien AHT-ak abiadura moteltzea". Bestetik, kargatutako merkantzia trenak pasako balira errailen mantentzea zailduko litzateke, "AHTk paraleloak diren errailak behar baititu".

Fundazioko kideek susmoa dute "AHT eginez gero bi azpiegitura mantenduko dituztela: AHT bidaiariendako eta egungo trenbidea merkantziendako eta bidaiarien aldirietako bidaietarako geldituko litzateke; azken hori, gero eta gutxiago izanen du, dirua AHT-k eramaten baitu".

Zelaia Ipar eta Hego Kataluniako mugako adibidea eman du, han merkantziak garraiatze-

ko AHT tarte bat baitago, estatuko bakarra. "Baina oso gutxi erabiltzen da. Bartzelonako portura iristen diren merkantziak Frantziara ohiko trenbidetik garraiatzen dira, AHT oso garestia delako. Bidaiariak garraiatzen dituen AHTri pasa uzteko hainbatean gelditu behar dute merkantziak daramaten AHT-k. Horregatik, nahiago dute ohiko trenbidea erabili. Hura kudeatzen zuen enpresak porrot egin zuen".

Bestetik, txostenean hainbat erakunderen iritzia ere jaso dituzte, "AHT merkantzien trenbide garraiora ez dela egokitzen" diotenak. Tartean CEOE, Fedea edota Centro Español de Logística.

AHT eta Sakana

Iruñea eta Gasteiz Sakanan barrena lotzeko egitasmoa aurkeztu zuen ministerioak eta hari makina bat alegazio aurkeztu zitzaizkiola gogorarazi du Zelaia. "Egitasmoa ez dago geldirik. Madrilen gobernurik ez denez egon, Gasteizko eta Iruñeko gobernuekin egin beharreko bilera atzeratu da. Orduan erabakiko dute Sakanatik nondik pasatzen den AHT: Gasteizen edo Ezkio-Itsason bukatzen duen". Hiru gobernuen arteko bilera hori "edozein momentutan egin daiteke eta orduan larri ibiliko gara, proiektua izanen baitugu, eta berehalakoan mugitzen hasi beharko dugu".

+www.guaixe.eus

"EGUNGO SAKANAKO TRENBIDEA ONA DA ETA ERRAZ BIKOIZTU DAITEKE. BORROKATU BEHARKO DUGU"



Irurtzugo, Lakuntzako eta Altsasuko mintzakide taldeak. UTZITAKOIA

modu horretan euskarari bultzada eta geure buruari konfiantza ematea lortuko dugu". Gaineratu duenez, "mintzakide taldeak erabakitzen du euskara nola praktikatzen: tabernan mahai baten inguruan, elkartearen errezeta bat prestatzen, paseoan... ez dago mugarik!"

Dohainik

Mintzakiden parte hartzeak ez du kosturik. Izena eman nahi duenak 600 482 024 telefono zenbakira hots egin dezake, sakanamintza@aek.eus e-posta idatziz, Facebook-eko Sakanako Mintzakideak profilean sartu edo AEKren Itsasi euskaltegitik (Altsasuko Gartzia Ximenez 46. zenbakia) pasa daiteke.

JENDEA TALDE TXIKITAN, ASTEAN BEHIN, ORDU BATEZ ELKARTZEN DA EUSKARAZ ARITZEKO

Inauteriak iragartzeko irudi egokiaren bila

Altsasuko Udalak herri bozketa antolatu du ihoteak iragartzeko irudia aukeratzeko

ALTSASU

Herri ihoteko aurreneko argazki lehiaketa antolatu zuen joan den urtean Altsasuko Udalak. Lehiaketara 39 argazki aurkeztu ziren eta udalak hiru sari eman zituen: Maria Angeles Albarran barañaindarrak irabazi zuen lehenengo saria Indarra argazkiarekin, bigarrena Mañerura joan zen eta Ivan Rodriguezek irabazi zuen. *Odola eta sua* deitzen zen argazkia. Hirugarren saria Jon Busto altsasuarrak irabazi zuen *Gorri* lanarekin. Aurtengo inauteriak iragartzeko kartela egiteko Altsasuko Udalak lau proposamen egin ditu: hiru argazki saritu horietako bat erabiltzea eta momotxorroaren silueta duen eta orain arte erabili den betiko irudia erabiltzea.

16 urtetik gorako altsasuarrek gogoko duten irudiaren alde botoa emateko aukera dute, ilbeltzaren 26ra arte. Herriar bakoitzak boto bakarra emateko aukera izanen du. Horretarako, www.altsasu.eus web gunean sartu beharko dute edo bestela Iortia kultur gunetik pasa eta han dagoen hautetsontzian botoa eman. Kultur gunean botoa emateko aukera 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara egonen da astegunetan.

Euskara, praktikatzera!

Gaur egun Mintzakideko 14 talde daude martxan eta Uharte Arakilen eta Etxarri Aranatzeko talde bana martxan jarri nahi dira. Euskaraz hitz egiteko taldeetan izena eman nahi duenak 600 482 024 telefonora hots egin dezake

Sakana

Elkartean, tabernan, okindegian, liburutegian... Halako tokietan elkartzeko dira Mintzakide programako taldeak Sakanan. Baina izan daiteke ere, pasio bat emateko, zinemara joateko, mendira, bizikletan ibiltzeko... Kontua da talde txiki bat elkartzeko eta haien artean euskaraz hitz egitea. Mintzakiden izena ematen duten gehienek euskara badakite, edo ikasten ari dira, baina ez dute praktikatzeko aukera handirik. Antzeko egoeran dauden beste pertsonekin talde txikietan elkartzeko gehiago hitz egiteko aukera sortzen zaie. Gainera, aldamenean, euskaraz aritzeko

joera duen euskaldun bat dute beti.

Sakanan bederatzi herritan Mintzakideko 14 talde daude martxan gaur egun. Astearen behin ordu batez euskaraz hitz egiteko elkartzeko dira. Sakanako Mintzakideko Aitor Irigoienek esan digunez, aurtengo Uharte Arakilen eta Etxarri Aranatzeko talde bana osatu nahiko lukete. Gainerako herrietan talde berriak sortzeko aukera ere badagoela esan digu. Irigoienek azaldu digunez, "ikasitugun euskara praktikan jartzea oso garrantzitsua da mingaina askatzeko, berdin da euskara perfektu bat ez hitz egitea. Mintzakide programak mingaina euskaraz askatzeko du helburu;

Sakanako Mintzakide taldeak

Herria	Eguna	Ordua	Tokia
Irurtzun	Astelehenetan	18:00	Iratxo elkarte
	Asteazkenetan	09:00	Pikuxar euskal txokoa
	Ostiralean	18:00	Pikuxar euskal txokoa
Irañeta*	Astelehenetan	19:00	Txapel Azpi elkarte
Lakuntza	Asteazkenetan	18:45	Gure Nahia elkarte
Arbizu	Astearteetan	18:00	Aralar taberna
Iturmendi	Astelehenetan	17:00	Aritzaga elkarte
Urdiain	Ostegunetan	19:00	Liburutegia
Altsasu	Astelehenetan	16:00	Koxka taberna
	Asteazkenetan	11:30	Espejo taberna
	Ostegunetan**	20:00	Lezea taberna
	Ostiralean	09:00	Alde zaharreko okindegia
Olatzagutia	Ostegunetan	17:00	Agedi taberna
Ziordia	Astearteetan	16:00	Liburutegia

*ASTELEHEN ZORIONTSUAK. HILABETEAREN BEHIN ELKARTZEN DIRA.
**ALTSASUKO EUSKALKIA LANTZEKO TALDEA BI ASTEAREN BEHIN ELKARTZEN DA.



Txoooootx!

JUANLUZENA SAGARDOTEGIA

URTARRILAREN 18TIK MAIATZAREN 9RA
txotx denboraldia zabalik

948 604 571 | 680 652 183 | ODERITZ



Gazte asanbladek greba orokorrarekin bat egin dute

"Krisi kapitalista berri baten atarian, sistema kapitalistaren partetik ezer onik ezin dugu espero"

SAKANA

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak hilaren 30erako deitutako grebarekin bat egin dute Sakanako gazte asanbladek. Gazte erakundeek gogorarazi dutenez, "aurreko greba orokorrak 2008ko krisiaren testuinguruan kapitalak aurrera eramaten ari zuen ofentsibari aurre egiteko egin baziren, nekez esan daiteke berau gelditzea lortu genuenik. Aitzitik, langile klaseak zuen antolakuntza eta borroka gaitasun eskasagatik, ofentsiba horrek ez du etenik izan". Eta hor koka-

tu dituzte lan erreformak, murritzaketak, mozal legea, abortuaren kontrako legea eta beste. Gaineratu zutenenez, "krisi kapitalista berri baten atarian, sistema kapitalistaren partetik ezer onik ezin dugu espero gazte langileok. Langile klaseko pentsionista, migratzaile edota emakumezkoek, besteak beste, espero ezin dezaketenez bezala".

Sakanako gazte asanbladako kideen iritziz, "kapitala ez dago prest hainbeste urteko borrokaren ondorioz eskuratutako garaipenak bermatzen jarraitzeko,

ofentsiban sakontzeko lursaila prestatzen ari da burgesia. Ongizate estatua deitu izan denak etorkizun laburra du". Gazte erakundeek gaztigatu dutenez, "langile klaseak inoiz ezer lortu badu ez da etsaiaren opari izan, antolakuntza propioak ematen zion indarraren fruitua baizik". Horregatik, langileak, eta bereziki gazteak, antolatzen eta borrokatzen deitu dituzte, "Euskal Herriko langile klaseak elkartzunean oinarritutako botere propio batekin soilik egin diezaiokete aurre ofentsibari".

Nabarmendu dutenez, "etorkizun ilun horren aurrerapena gazteok jada bizitzen ari gara". Haiek bizi dutena zerrendatu dute: urte luzez ikasten egon beharra, ordaindu gabeko praktikak, miseriazko soldatak, kontraturik gabe lan egitea, lanpos-



Sakanako gazte asanbladek greba orokorrarekin bat egitera deitu dute. .

tu prekarioak edo emantzipatu ezina. Gazte asanbladetakokideen iritziz, hori guztia "etorkizunean langile klase osoari eskaintzen zaion iragarpena baizik ez da".

Sakanako gazte asanbladek ilbeltzaren 24rako, heldu den

ostiralerako, manifestazioa deitu dute. Altsasuko Foru plazatik 19:00etan abiatuko da. Aldi berean gazteak, eta langile klasea, greba orokorrean eta haren harira eginen diren deialdietan parte hartzen deitu dituzte.

AISIALDIKO

BEGIRALEEN LAN-POLTSA

GUTXIENKO BALDINTZAK:

- Euskaraz jakitea, ahoz nahiz idatziz. C1 egiaztatu beharko da.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua edo horren baliokidea.

KONTUAN IZANGO DA:

- Gidatzeko baimena eta autoa izatea.
- Aisialdiko begirale titulua.

Mank
s a k a n a

Harremanetan jartzeko modua:
Interesa dutenek beren curriculumak honako helbide honetara bidali beharko dute:
euskara1@sakana-mank.eus

Langile bat lan istripuan larri zaurituta

Gizonezko bat (36 urte) larri zaurituta Nafarroako Ospitale Guberan eraman zuten ostiral goizean. Laneko enpresan lanean ari zela transpalet batek harrapatu zuen. Ezbeharrak kolpe larriak eragin zizkion, nahiz eta bizitza arriskuan ez egon. Uharteko osasuntaldea, suhiltzaileak eta ambulanzia joan ziren. Ezbeharraren ikerketa Foruzaingoak egin zuen.



Laneko enpresa. ARTXIBOA



DUELA 25 URTE... 1995/01/17



1.700 litro sagardo prest

Arbizuko bi kuadrillak sagardogintzan hiru urte zeramaten 1994an. Eurendako sagardoa egiten zuten. Eta kuadrillendako zen soilik, baina "pixka bat erregutuz gero, ilbeltzean tragotxo bat edan ahal izanen dugu". 3.400 kilo sagar erabili zituzten, Galiziatik ekarriak. Euren sekretuak ere ba omen zituzten.



Lakuntzako azienda herriko azokan ikusgai izaten da, maiatzean. ARTXIBOA

Udalak herri-aprobetxamenduak arautu ditu

Herri-larreen eta etxerako egurraren aprobetxamenduak arautzen dituen ordenantza indarrean da dagoeneko

LAKUNTZA

Lakuntzar guztiek aprobetxatu eta erabil ditzaketen herri-ondasun diren aprobetxamenduak arautu ditu udalak. Lakuntzako Udalaren araudian zehazten denez, “herri-ondasunak bestere-nezinak, preskribaezinak eta enbargaezinak dira eta ez dute beren gain tributurik izaneren”.

Lakuntzako herri-lurrak aprobetxatzeko bete beharreko baldintzen artean daude: herriko erroldan izena emanda egon beharko du eskatzaileak, gutxienez hiru urteko antzinatasunarekin; Lakuntzan bertan gutxienez urteko bederatzi hilabetez modu jarraian bizitzea edo udalarekin zorrik ez izatea. Ordenantzak familia-unitate bakartzat hartuko ditu etxebizitza berean bizi diren familiako kide guztiak. Herri-larreak ustiatzeko abeltzaina (ardi, behi, zaldi eta txerri azienda) izan behar da. Lau larre

eremu zehaztu ditu udalak, baita haietan azienda sartzeko epeak ere. Larreak emateko prozedura eta baldintzak ere zehaztu dira ordenantzaren.

Etxerako egurraren kasuan, Lakuntzako Udalak urtero ezarriko du familia-unitateei adjudikatu beharreko epaitzen bolumena, mendian dagoen egurraren arabera. Onuradunek ezin izanen dituzte epaitzak saldu, eta eskuratu duten etxean besterik ezin izanen da erabili egurra. Egur loteak banatzerakoan Lakuntzako Udalak irizpide sozialak kontuan izanen ditu eta diru aldetik apalenak diren familia-unitateei emanen die lehentasuna. Etxerako egurragatik ordaindu beharrekoa urtero zehaztuko du udalak. Onuradunak behartuta daude egurra bildu ondoren hondarrak jaso eta pilatzera. eta debekatu dute enborrak pistetik herrestan ateratzea.

Txerri-hiltzea, La Encinan elkartzeko aitzakia

La Encina Extremadurako kultur elkarteak 14. urtez txerri hiltzearen ospakizuna antolatu du bere egoitzan. Egiteko handienak hasi baino lehen, bazkide batzuk argitu aurretik elkartean izanen dira, aurre prestaketa lanak egiten. Horiek eginda eta lan handiagoei heldu aurretik majo gosalduko dute. Horretarako, 09:30erako Extremadurako erara

prestatutako otapurak izanen dituzte. Horren ondoren hilik eramandako txerria zatituko dute. Gero bazkideak harekin hestekiak egiten hasiko dira eta haiek prestatzen goiza emanen dute.

Baina, 11:00etan, etena egingen dute txerriaren zati batzuk zartaginetik pasatu eta gero dastatzeko. Txerri hiltzearen egunak bazkide eta bazkide ez direnak erakartzen ditu La Encinara, eta animazio handia izanen da goiz guztian. Haietako asko 14:30ean mahaira bazkaltzera eseriko dira.

Hasi dira plaza aldeko sareak berritzeko lanak

Estafeta, Elizalde, Arrano Beltza, Konsistorial eta Zirrinkale kaleetako sareak eta zorua berrituko dituzte. Berokuntza sistemako bi hodiak, ur beroarena eta berogailuarena, ere jarriko dituzte

ITURMENDI

Joan den astetik Construcciones Beroste SA enpresa euri uren eta ur beltzen sareak banatu eta gainontzeko sareak eta zorua berritu eta herri-argiteriako kableak lurperatzeko lanean ari da. Horrekin batera, berokuntza sistemaren lehen faseko hodiak jarriko dira, Iturmendiko Udalaren asmoa baita biomasa galdara bat jartzea eta haren bidez hala nahi duten herriko etxe guztiei berogailua eta ur beroa eskaintzea.

Victoriano Gabirondo Lanz jarduneko alkateak azaldu digunez, kale horietako 16 etxek baiezkua eman diote udalaren eskaintzari. Tartean dira lau udal eraikin ere: eskola zaharra (jubilatatu elkarte eta Eztanda irratia), Aritzaga elkarte, Ximona gaztetxea eta aldameneko etxea eta udaletxea. Iturmendiko Udalak bajera edo pabiloi batean ezpalekin elikatuko den berogailu bat jarriko du eta hark berotuko ditu ur beroko eta berogailuetako zirkuituak. Udalaren asmoa da epeka berokuntza sistema herri guztira zabaltzea. “Udalik baldin badago”, zehaztu du jarduneko alkateak.

Hasi berri diren lanak hiru hilabete iraungo dute, eta enpresak haien truke 346.500 euro (BEZ



Zorua jaso eta gero hura zulatzen hasi da pala.

kanpo) jasoko ditu. Dirutza horren % 70 Nafarroako Gobernuak pagatuko ditu eta beste 56.800 euro Sakanako Mankomunitateak, ur azpiegituraren ardura berea baita.

Bestetik, kale horietako herri-argiteria aldatu berri du udalak eta LED argiak jarri ditu (40.000 euroko inbertsioa). Baina Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza jaso du, Alkateak jakinarazi digunez, Iturmendiko aurreneko LED argiak dira eta asmoa da herri guztira faseka zabaltzea, beti ere diru-laguntzarekin.

Jarduneko udala

Iturmendiko Udala ez zen joan den urtean berritu eta 2015ean aukeratutakoa jarduneko udala da. Haren ordezkua kudeaketa batzorde bat izanen da, Nafarroako Gobernuak izendatuta. Gabirondok azaldu digunez, “gutxienez bost boluntario behar dira kudeaketa batzordea osatzeko. Gu prest gaude obra bukatu eta aurrekontuak egiten laguntzeko. Horregatik, jendea izena ematera, boluntario izatera animatzen dugu. Hasieran lagunduko dugu, baina ardura utzi nahi dugu”.

San Sebastian Olatzagutian

Olatzagutiko San Sebastian ermitak astelehenean zabalduko ditu ateak. 12:00etan meza izanen da eta haren ondoren, 13:00etan, auzoko bizilagunek auzatea eskainiko dute. 17:00etan ermitan arrosarioa errezatuko dute eta ondoren estalpean txokolatea eta erroskillak banatuko dituzte. Despeditzeko udalak auzatea eskainiko du 19:30ean, frontoian.



ARTXIBOA

Paris 365 proiektua babesteko asteburua

Iratxo elkarteak Paris 365 jangela sozialaren aldeko elkartasun asteburua hartuko du. Paris 365 fundazioa ekonomia egoera "larrian" dago eta hura lagundu nahi dute. Asteburuan boluntario aritzeko makina bat modu izanen dira

IRURTZUN

Finantza arloak eragindako ekonomia krisi betean, 2009an, Gizakia Herriar fundazioak Paris 365 jangela soziala zabaldu zuen Iruñeko Alde Zaharrean. Era-kunde publikoak ezin iritsi zeuden garaian sortu ziren, premiazko egoerari erantzuteko. Ekonomia, osasun edo gizarte arrazoiengatik elikadura egokia eskuratu ezin duten pertsonen euro baten truke gosaria, bazkaria eta afaria ematen diete Paris 365 jangela sozialean. Jangelaren leloa den "gizarte justiziaren alde, berdintasuna eraikitzen" leloari segituz hasi ziren lanean.

Hamar urtetan 278.000 gosari, bazkari eta afari baino gehiago eman dituzte. Jendearekin zuzeneko harremana izateak beste-lako premiez jabetzera eraman zuen fundazioa eta, horrela, baliabide gehiago sortu zituen: despentsa solidarioa (haurrak dituzten familien elikadura bermatzeko), zopa beroa (negua kalean eta bakarrik pasatzen dutenei astean hirutan banatzen zaie), Paris 365 txokoa (egoera zaugarrian dauden pertsonen baliabideak eskaintzen dizkiena), Garabato ikasketa komunitatea (Alde Zaharreko erakundeekin batera haurrei zuzendutakoa) eta Paris Etxea (premia duten pertsonen edo familiei aldi baterako etxebizitza eskaintzeko). Guztiak aurrera egiten du 1.700 boluntarioen lanarekin eta 500 bazkide baino gehiagoren ekarpenarekin.

Erakundeko buru Patxi Lasak jakinarazi duenez, fundazioaren egoera "larria da, eta jantoki soziala ixteko arriskuan dago, 67.000 euroko defizita baitugu". Krisia bukatutzat ematen duten mezuak zabaldu dira gizartearen eta ondorioz halako ekimenendako laguntzak behera egin dute. Nahiz eta eskaria dagoen eta neguan handitu egiten den. Hainbat neurri hartu dituzte eta



Iratxo elkartearen aurretik egindako beste elkartasun afari bat. ARTXIBOA

BIHARKO AFARIRAKO JATEKOAK EDO ETZIKO AZOKARAKO GAUZAK EMATEKO AUKERA DAGO

lehentasunezko zat jo dute elikadura baliabideak mantentzea (jateketa, despentsa eta zopa beroa). SOS Paris 365 kanpaina abiarazi zuten abenduan eta otsaila bitartean 100.000 euro bildu nahi dituzte.

Irurtzunen ekimena

Makina bat irurtzundar boluntario lana egiten ari da Paris 365 jangelan eta sanferminetan zabalitzen den tabernan. Haietako bat da Txiki Iriarte. "Haien egoeraren berri jakin genuenean erabaki genuen zerbait egitea. Ez soilik dirua ateratzeko, kontzientzia zabaltzeko ere; prekaritatea hor dagoela salatzen". Iriartek esan digunez, "asteburuan Paris 365en lan egiten duten modua erakutsi nahi dugu eta, horregatik, boluntario lana modu askotara egiteko aukera eskainiko dugu: azokarako gauzak

ematen, afarirako jatekoak ematen, afaltzera etorritik, azokan lagunduz..." Asteburuko ekimenen beste helburu bat da Gizakia Herriar fundazioarendako bazkide gehiago lortzea.

Antolatutako egitaraua Iratxo elkartearen izanen da eta, horregatik, elkarteari esker ona azaldu dio. Gaur, 19:30ean Patxi Lasak eta Mikel Legarrak Paris 365n funtzionamenduaren berri ematen dute gaur, 19:30ean. Larunbatean, 21:30ean, elkarteak fundazioaren aldeko herri-afaria hartuko du. Erredakzioa ixterakoan 70 bat pertsona zeuden izena emanda. Iriartek azaldu digunez, "zero kostua izaten saiatzen ari gara. Jendeak eta denda batek jatekoak eman dizkigu". Beraz, afariagatik ordaintzen diren 12 euroak zuzenean fundaziora joanen dira. Despeditzeko, igandean, Iratxo elkarteak Paris 365en aldeko azoka hartuko du. Arropa, musika, liburuak eta beste modu onean eskuratutako aukera izanen da. Irurtzundarrek emandako materialekin osatutako azoka da eta 10:00etatik 15:00etara zabalik izanen da. Elkarteko taberna ere zabalik izanen da.

Lau hamarkadatan hamaika parlamentari

Foru legeintzarraren 11 parlamentari sakandar izan dira, 8 gizonezko eta 3 emakumezko

SAKANA

Frankismoaren ondoren, Nafarroako Parlamentua 1979an eratu zen. Beraz, joan den urtean 40 urte bete zituen foru legebiltzarren jardunak. Herrialdeko parlamentarismoaren historian zehar 11 sakandar izan dira nafarrak ordezkatzuz parlamentuan eseri direnak. Etxarriar bat eta olaztiar bat izan ezik guztiak altsasuarrak dira, zortzi gizonezko eta hiru emakumezko. Hautagaitza abertzaleak parlamentura eramandako sakandarrak zortzi dira, hiru konstituzionalistak.

Herriarrak aukeratuta Nafarroako Parlamentuan aritu diren hamaika sakandarrak honakoak dira: Ignacio Javier Gomara Granada (Etxarri Aranatz, UPN, 1979-1983/ 1987-1995), Gerardo Del Olmo Ramirez de Alda (Altsasu, HB, 1979-1983), Iñaki Urrestarazu Zabalo (Altsasu, HB, 1979-1983), Emilio Boulondier Maiza (Altsasu, PSOE, 1979-1983), Angel Garcia De Dios (Altsasu, HB, 1979-1983), Juan Manuel Goikoechea Askorbe (Altsasu, EA-EAJ, 1999-2003), Jose Angel Agirrebengoa Imaz (Altsasu, NaBai, 2007-2011), Asun Fernandez de Garaialde Lazkano Sala (Altsasu, NaBai, EH Bildu, 2007-2019), Lourdes Goikoechea Zubelzu (Olatzagutia, UPN, 2011-2015), Esther Korres Bengoetxea (Altsasu, EH Bildu, 2015-2019), eta Unai Hualde Iglesias (Altsasu, Geroa Bai, 2015-...)

Lau hamarkada horiek gogorarazteko Nafarroako Parlamentuak argazki erakusketa prestatu du eta bere egoitzako ezkaratean ikusgai jarri du. Parlamentari berri jasotzen duen erakusketa horrek bereziki aurreneko legeintzaldiari erreparatzen dio. Parlamentuan dagoen erakusketa bisitatu nahi duenak gaur du azken aukera, 10:00etatik 20:00etara.

Ospak errepresioaren kontrako astea antolatu du

Astelehenetik larunbatera bitarteko egitaraua prest du; liburu aurkezpena, mahai-ingurua eta beste

ALTSASU

Ospa herri mugimenduak "Euskal Herrian jasaten dugun militar- eta polizia-okupazioa" salatu, eta "okupazio horrek euskal langile klasearengan eragiten duen errepresioari aurre egiteko" antolatu du, "mugitzen ez denak ez dituelako kateak sentitzen!"

Egitaraua

Ilbeltzak 20, astelehena

- **19:00** Asanblada irekia: 2020ko plangintza, Gure Etxea eraikinean.

Ilbeltzak 21, asteartea

- **19:00** Fermin Ezkietaren liburu aurkezpena: *Los fugados del fuerte de Ezkaba*, Gure Etxea eraikinean.

Ilbeltzak 23, osteguna

- **19:00** Mahai-ingurua: @erreharria, Boro eta Indar Gorri.

Ilbeltzak 24, ostirala

- **17:45** *InsurgenZia* dokumentalaren aurkezpena, gaztetxean.
- **19:00** Sakanako gazteak grebara! manifestazioa, plazatik abiatuta. Sakanako gazte asanbladak.
- **20:30** Isunen kontrako pintxo-poteoa, gaztetxean.
- **22:00** Errepresioaren kontrako afaria, gaztetxean.
- **23:00** Bakarlarria. Liberando el corazon, gaztetxean.

Ilbeltzak 25, larunbata

- **13:00** Prentsaurrekoa.



ARTXIBOA

Aisialdiko begiraleen lan-poltsa

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak aisialdiko begiraleen lan-poltsa osatu nahi du. Hartan izena eman nahi dutenek euskaraz jakin behar dute. Gainera, DBHko titulua edo horren baliokidea izan beharko dute. Mank-ek kontuan hartuko du gidatzeko baimena eta autoa izatea eta aisialdiko begirale titulua izatea. Curriculumak: euskara1@sakana-mank.eus



REBEKA MENDOZA

Txorrotxio eta hegaleen artean

Olatzagutiko frontoiak IV. Txori Erakusketa eta Trukaketa hartu zuen igandean. Hegazti mota gehiago ikusgai egon ziren, eta kolore festa polita osatu zuten. Jende ugari bertaratu zen. Izan ere, Penintsularen Iparraldean ospatzen den topaketa bakarra da. Hortaz, urtero gero eta hazle gehiago etortzen dira. Antolatzaileendako erakusketa arrakastatsua izan zen.

Etxebizitzaren arazoari konponbidea eman nahian

Arbizuko Udalak inkesta baten bidez herritarren premien berri jaso du eta horren emaitzak Nasuvinsa enpresa publikoari jakinaraziko dizkio. Galdetegia erantzun zutenek proposamenak egiteko aukera ere izan zuten

ARBIZU

Nork bere bizi proiektua aurrea eramateko etxebizitza oinarritzko elementu bihurtzen da. “Beste herri askotan bezala, Arbizon ere etxe zaharrak husten ari dira. Baina handiegiak direnez, alokairu arrunt baterako ez dute balio. Eta Arbizon pisuak edo etxe arruntak alokatzeko arazoa dugu”. Egoera horrela azaldu digu Arbizuko alkate Francisco Javier Razkin Floreek, Rubiok. Irtenbide bila etxebizitzaren gaiaz arduratzen den Nafarroako Gobernuaren Nasuvinsa enpresa publikora jo zuten udaletik. Rubiok esan digunez, “datu zehatzak eskatu zizkiguten, kopuruaren arabera, esku hartzeko”.

Gauzak horrela, Arbizuko Udalak herritarren artean etxebizitza premien inguruko inkesta zabaldu zuen. Jasotako informazioarekin, atzera ere, Nasuvinsara joko du udalak, datuak aurkeztu eta alokairuzko etxebizitza eskaintza zabaltzeko neurriak topatu asmoz.

Inkestaren emaitzak

Arbizun etxebizitza eskuratu nahi luketen galdetuta, % 45,5ek aurrena alokairuan bizi eta gero etxebizitza erosi nahi du. % 36,4k alokairuan bizi nahi luke eta %



Etxe motaren inguruko ezaugarrian eman dituzte ere.

18,2k, berriz, etxebizitza erosi. Etxebizitza alokairuan hartu nahi dutenetatik % 64,3k ezin dute alokairuan biziko liratekeen epea zehaztu; % 21,4k epe motzeko (4 urte baino gutxiago) alokairua aurreikusten du eta % 14,3k, azkenik, epe luzekoa (4 urte baino gehiago).

Etxebizitzaren ezaugarrien inguruan ere galdetu ziren udalak arbizuarrei eta gehienak, % 81,8, hiru logelako etxebizitza nahiko lituzkete. Komunei dagokienez, % 59,1k komun pare bat nahi lituzkete, gainontzekoak baka-

rrarekin moldatuko lirateke. Bestetik, Arbizon bizitzeko dauden oztopoak ikusirik, hainbat proposamen jaso ditu: etxe zaharrak erostean laguntzak ematea, adosatu edo etxe bakarrak eraikitzea, Kale Nagusiko eraikin hutsetan apartamentuak edo pisuak sortzea, hutsik dauden etxebizitzak jabeek alokatzeko proposatu, babes ofizialeko etxebizitzak eraiki, etxebizitza hutsik duten jabeekin bildu eta etxebizitza hutsik egotearen arrazoia aztertu, hutsik dauden etxebizitzak zergak igo...

ALTSASU
618 323 403
• Iratxe Hiribidea, 48
948 468 026
Zumakaregi Plaza 3
670 389 017
• San Juan Kalea, 50
948 562 185
• Otadiko Kristo Dautza, 19

1954

Amaya

OKINDEGIA

OLAZTI
948 468 755
• Orreaga Kalea, 1

ARAIA
945 314 572
• Andoni Urrestarazu, 3

VITORIA-GASTEIZ
945 148 368
• Arriagako Atea, 12

ETXARRI-ARANATZ
948 461 660
• Kale Nagusia, 4

San Anton ospatuko dute asteburuan

Dorraoko, Bakaikuko, Iturmendiko eta Urdiaingo San Anton kofradiak euren bilkurak eta ospakizunak egingen dituzte larunbatean eta igandean. Urdiaingo sanantondarrek kofradiako buruzagien etxera bazkaldu ondoren egindako bisitak erdira jaitsiko dira

DORRAO / BURUNDA

Ilbeltzak 17 da gaur, San Anton eguna. Saindua animalien zaintzailea da, baita abereekin zerikusia duen lanbideen babeslea ere. Horregatik haren gerizpean sortu zituzten mandazain eta abeltzain sakandarrek San Anton kofradiak. XVII. mendetik bizirik daude Burundako hiruak asteburuan elkartuko dira, eta gauza bera egingen du 1932an eratu zen Dorraokoak ere.

Aurtengo beritasuna da Bakaikuko, Iturmendiko eta Urdiaingo sanantondar askok kofradien sorreraren eta garapenaren berri zehatzagoa dutela. Eta hori Nicolas Arbizu Gabirondoren Burundako mandazainak liburuari esker da. Udazkenean aurkeztutako liburu horretan Arbizuk salgaiak batetik bestera eramaten zituzten gizon haiei buruzko makina bat argibide ematen ditu: zein animalia erabiltzen zituzten, zein salgai garraiatzen zituzten, nondik nora ibiltzen ziren, zuten janzkera berezia, pagatzen zituzten zergak, lapurretak, galtzadak, haien mantentzea, agintariei aurkeztutako kexak, kofradiak eta beste. Arbizuk berak Burundako kofradeei liburu eskaini die, eta larunbatean ere Bakaikura joatekoa da.



Iturmendiko San Anton kofradiaren estandarteak San Migelen irudia du ere. ARTXIBOA

Dorrao

Sanantondar dorrobarren buru edo priorea aurtan Francisco Lizarraga Senar da. Bera arduratu zen kofrade guztiak larunbateko hitzorduaz gaztigatzeaz, kanpoan bizi zirenei telefonoz hots egin zien eta herrian daudenek apaizak mezan esan zuelako jakin zuten. Prioreak laguntzaileekin batera biharko gosaria prestatuko dute gaur Itur-aldea elkartean. Izan ere, sanantondar goiztiarrenak dira dorrobarrak, larunbatean, 09:00etan, hildako kofradeen aldeko meza baitute.

Hura despedituta priorearen etxera joanen dira eta hildako kofradeen aldeko errespotsua errezatuko dute (Aita Gurea eta Agur Maria).

Elkartean kofradiako karguak zozketa bidez berrituko dituzte. Majo gosalduta ondoren, batzuk kartetan edo hizketan ariko dira, pasieran besteak... 15:00etan izanen da, bazkaria. Horren aurretik prioreak eguneko kontuen berri emanen du. 19 sanantondar elkartuko dira bihar. Kofradeek ezin badute joan ordezkaria bidali beharra dute.

Bakaiku

San Anton kofradiako kideak larunbatean, 13:00etan, elizara joanen dira, hildako kideen ome-nezko elizkizunean parte hartzera. Joaten ez direnak isun txikia ordaindu beharko dute. Handik aterata, talde argazkia egin eta bazkal garaia iritsi arte poteoan ibiliko dira. Bakarrekotxe elkartean izanen da bazkaria. 70 bat dira kofradeak baina 46 bat elkartuko dira. Bazkaldu ondorengo akordeoilari batek girotuko du. Baina haren aurretik batzarra egingen dute sanantondar bakaikuarrek. 1.715etik kofradiaren berri jasotzen duen akta liburuan kideen bajak eta altak idatziko dituzte, baita buruzagi edo maiordomo berriaren eta haren laguntzailearen edo beleroaren izen-abizenak ere. Aurtan Roberto Ramosek maiordomo izateari utzi eta Mario Gastaminza beleroak hartuko du ardura hori.

Iturmendi

Iturmendiko kofradiak domekan, 11:00etan elizan du hitzordua. Hildako kofradeen aldeko elizkizunera kofradiaren esta ndartea aldean dutela joanen dira. Mezaren ondoren kofradeak apaiz-etxean egingen dute batzarra. Kofradiaren kontuak eguneratu eta haien berri emanen zaie sanantondar guztiei. Gainera, 1690ekoa den akta liburuan kide berrien eta hildakoen izenak idatziko dituzte. Kofradeen artean ardurak banatuko dituzte (priorea eta abanderadua, edo laguntzailea) eta, despeditzeko, hildako kofradeen aldeko errespotsua errezatuko dute (Aita Gurea). Bilkura eguna borobiltzeko Sanantondar iturmendiarrak Aritzaga elkartean bazkaltzera elkartuko dira.

Urdiaín

Sanantondar urdindarrak larunbateko 12:00etako mezara joanen dira, hildako kofradeen aldeko elizkizuna baita. Mezaren ondoren kofradeak elizako eskaileretara atera eta apaizaren inguruan jarriko dira, hark handik Urdiaingo soroak eta aziendak bedeinkatzen dituen bitartean. Horrek garai batean eliz ondoan egiten zen animalien bedeinkapena ordezkatu zuen. Ondoren kofradiaren kanta. Egiteko horiek despedituta elizaren aldamenan dagoen Tintiniturri elkartean gosalduta dute kofradeek.

Hurrengo geltokia herriaren etxea izanen da, han batzarra egiten baitute sanantondarrek urtero. Han kofradiako buruak edo maiordomoak aukeratuko dituzte. Imanol Goikoetxea eta Valentin Flores maiordomo zaharrek berriei lekukoa pasako diete. 1691n sortutako kofradiaren liburuan izan diren kideen bajak eta altak idatziko dituzte. Eta sanantondarrek dagokien diru kuota pagatuko dute eta hori ere akta liburuan jasoa geldituko da.

Aurtan pixka bat gehiago luzatuko da batzarra. Bazkaldu ondoren kofradiako buruzagien etxeetara joateko ohitura dute. Baina hor aldatuta izanen da aurtan. Domekan gaia aztertzeke bildu ziren kofradeak eta biharko bilkuran behin betiko erabakia hartuko dute. Migel Anjel Zubiriak azaldu digunez, "lau etxetara joaten gara kafea eta kopa hartzera. Ilundu egiten da eta gehiegixkoa ote den irizita, lautik bakarrera edo bira jaitsiko ditugu bisita horiek". Aitziber elkartean bazkaldu ondoren (14:30ean) jarriko dute praktikan neurri berria, 18:00etatik aurrera.

Construcciones
zaldua
Eraikuntzak S.L.

607 352 617 · javierbetelu@gmail.com
Herriko Plaza 4 · 31830 LAKUNTZA (Nafarroa)

*Zalduak Sansaastin festa
zoriontsuak opa dizkizue!*



"Ilusioa egin dit Lakuntzako danborradaren aitortzak"

GARIKOITZ FLORES AUTO PILOTUA

Lakuntzako danborradak omendu eginen du igandean

Alfredo Alvaro Igoa LAKUNTZA

2019an Espainiako Mendi Igoerako 2. mailako txapeldunordea izan zen lakuntzarra, eta aurreko urtean lehiaketa irabazi zuen. 2019ko Urbasako Igoera ere irabazi zuen Floresek eta danborradako antolakuntzak meritu horiek aitortu nahi dizkio.

Joan den urtean autoko direkzioarekin arazoak izan zenituen, zein egoeratan dago ibilgailua?

Motorra aldatuko diogu eta 2018ko bat jarriko diogu. Borjako igoeran kolpe bat izan nuen. Autoa eta motorra erreparatu ondoren, ea aurten nola dabilen. Urtero motor berriak ateratzen dira eta jendeak azken motorrak ditu. Hiru urte neraman motor berarekin, pixka bat zaharkituta gelditzen zen. Ez da gauza bera motor berria jartzea edo lau urte dituen motor bat. Ea zer ateratzen den.

Urbasako Igoera irabaztea nola hartu zenuen?

Urbasako igoera niretako oso garrantzitsua da. Etxeko igoera irabaztea oso polita da.

Denboraldi berrirako zein asmo dituzu?

Lagun batekin, Mikelekin, aztertzen aritu gara eta Espainiako txapelketa jokatu dugu. Car cross bat erosi dugu, harean ibiltzeko da. Eta nola dabilen probatzeko lasterketaren batean parte hartuko dugu.

Noiz hasiko duzu denboraldia?

Martxoaren 23an uste dut, Esteponan. Zortzi proba ditugu. Esteponaren ondoren, Ubrique,



Garikoitz Flores auto pilotua. ARTXIBOA

Fito, Galizia, Tenerife... zortzira arte.

Diru-kostua izanen du ere, ezta?

Horregatik, aurten furgoneta batekin joanen gara. Gauza batzuek diru asko balio dute, jendea eramatea... Ni lagun batekin joaten naiz. Bilboko beste lagun bat ere laster egiten du eta biekin moldatzen gara.

Nola hartu duzu danborradako omendua izatea?

Aurrekoan Ricardo Aretak hots egin zidan. Harritu nintzen. Polita da. Gustukoa da. Ilusioa egin dit aitortzak.

Hitza hartuko duzu?

Gutxi. Egia esan, lotsa handia ematen dit. Zerbait aterako da.

Nola ospatuko dituzu sansaastinak?
Egia esan, lasai; txintxo gaude.

LAKUNTZAKO SANSAASTINAK

Sansaastinetarako hiru egun gordeta

Larunbatean hasi eta astelehena bitartean neguko festak ospatuko dituzte lakuntzarrek

Sansaastin festen hasierako etxajua piztu ondoren, neguko festen egitarauan tradizio handia duen ekitaldia izanen da: piperopil lehiaketa. Arrautzez, azukrez, irinez eta anisaz (bakarren batzuek kanela ere erabiltzen dute) egingako opilak onena norena den jakin da udaletxean. Aldameneko plazan jarritako karpa izanen da festaren ardatza. Hark emanen dio aterpe, esaterako, aurten hiru hamarkada betetzen dituen danborradari (ikus azken orriko elkarrizketa). Igande gauerdian izanen da hori, nahiz eta arratsaldean haurrek euren danborrada izanen duten. San Sebastian eguna astelehenean denez, egun hori baliatuko dute lakuntzarrek ermitara erromerian joateko.

LARUNBATA 18

12:00 Piperopilak udaletxean utzi.
12:30 Txupinazoa, Sakaranga Txarangarekin.
12:30 Erraldoiak eta buruhandiak.
13:00 Piperopil txapelketa.
13:1 Auzatea.
17:30 Takolo, Pololo eta Elena Madalena pailazoak, plazan.
19:00 Aizkora erakustaldia, frontoian.
19:30 Buruhandiak.
19:30 Irantzu Gonzalez dantza eskolaren erakustaldia, plazan.
20:00 Auzatea.
20:00 Dantzaldia Joselu Anaiak taldearekin.
21:00 Zezensuzkoa
23:00-02:30 Dantzaldia Joselu Anaiak taldearekin.

IGANDEA 19

SAN SAASTIN BEZPERA

11:00 Puzgarriak, pilotalekuan.
13:00 Auzatea.

13:30 Tio Teron-en semeak dantza taldearen ikuskizuna.
16:30 Puzgarriak, pilotalekuan.
19:00 Danborrada txikia. Ondoren gurasoek prestatutako txokolate-jana.
19:30 Buruhandiak.
20:00 Auzatea.
20:00 Los Tenampa mariatxiak.
20:30 Zezensuzkoa.
24:00 Danborrada.

ASTELEHENA 20

SAN SAASTIN

Goizean goiz Aurora
11:00 Erromeria San Saastin ermitara.
12:00 Meza ermitan.
13:00 Auzatea, Lakuntzako Pertza elkaratek emana.
18:30 Elai Alai dantza taldea, plazan.
19:00 Alkate dantza.
19:30 Buruhandiak.
19:30 Dantzaldia Iñaki Bizkairekin.
21:00 Zezensuzkoa.

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Aliprox

948 576 246
Larrañeta z/g
LAKUNTZA

SANSAASTINAK

LagunArtea taberna

antxon saez

URTARRILAK 17
OSTIRALA
00.00H
07.00H

OIGI BERRI

APURILAKUNTZA

Ongi pasa festetan!

Mikel Arregi 7 · Lakuntza
669 426 335
irabxxo@hotmail.com

ARALAR

PERRETERIA · BURGINDEGIA

ondo pasa festetan

LAKUNTZA
Uriz kalea, 18 behea
948 464 806
administracion@aralarferreteria.com

Ongi pasa festak!

NEREA

ILEAPAINDEGIA

NEREA BAKAIKOA
Ermiñeta kalea 4 · 948 567 331
LAKUNTZA

CARNICERIA I. ARREGUI

HARATEGI ETA URDAITEGIA

Sakanako hiltegiaren hildako haragia

Ongi pasa festetan!

Etxeko obradorea: tripota · tripotxa · mihia · kalluak · saltxitxak · frituak
948 576 067 · Herriko plaza z/g · **LAKUNTZA**

"2020 urtea oso ondo hasi da"

SASKIBALOIA NAIARA DIEZ FERNANDEZ LOINTEK GERNIKA BIZKAIA TALDEKO KAPITAINA

Gernikak historia eginez hasi du urtea. EuroCupean final hamaseirenetarako sailkatu da eta Bilbao Arenan 5.562 zale bildu zituen, emakumezkoen saskibaloian kopururik handiena

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

Lointek Gernika Bizkaia saskibaloia taldeak modu ezin hobean ekin dio 2020 urteari. Aste honetako protagonistak dira gernikarrak eta Naiara Diez Fernandez kapitain altsasuarrak eman digu urrezko momentu honen berri.

Errekorrak apurtzen ari zarete: ilbeltzaren 4an Bilbao Arenan jokatu zuen lehenengoz Lointek Gernika Bizkaia, eta Emakumezkoen Ligan inoizko zale kopuru handiena bildu zuen, 5.562 ikusle. Eta aurreko ostegunean EuroCupeko final hamaseirenetara sailkatzea lortu zenuten.

Ibilbidea oso ona izan da denboraldi osoan, baina egia da 2020. urtea oso ondo hasi dela. Emakumezkoen Endesa Ligan Bilbao Arenan ilbeltzaren 4an 5.562 zale bildu ziren gu animatzera, giro ikaragarriarekin, eta Mann Filterren kontra garaipena lortu genuen, 78 eta 58. Bestalde, EuroCupean historia eginez, final hamaseirenetarako sailkatu gara. Aurreko denboraldian ez genuen fase honetara sailkatzea lortu, eta aurten bai; horregatik, oso pozik gaude.

EuroCupean, Bielorrusiako Tsmoki Minsk taldeari 83 eta 56 irabazi zenioten. Naiara, zuk 10 puntu lortu zenituen (bi hiruko), eta ondokoa irakurri dugu zutaz, gaztelerazko kronika batean: "pletórica, con arrojo, entregada y resolutive". Hitz potoloak...

Amaren hitzak ez dira izango (kar, kar...). Gure taldean garrantzitsuena taldea da, ez norbanakoa. Taldeak ongi jokatzen duenean, aukera gehiago ditugu garaipena lortzeko. Minsk-en kontrako EuroCup-eko partida bagenekien egun historikoa izan zitekeela, are gehiago etxean jokatuta, gure Maloste pabilioian



Naiara Diez kapitainarendako gakoa talde lana da. MARIA MENTXAKA

marea granatearen laguntzarekin. Beti animatzen ari dira, eta hori guretako oso garrantzitsua da garaipena lortzeko, edo behintzat barruan dugun guztia emateko. Partida oso ondo prestatu genuen eta azkenean 83 eta 56 irabazi genuen. Garrantzitsuena da 11 jokalarik gurela, eta egun batean bat ez badago horren ondo bestea ateratzen dela eta lana ondo egiten duela. Beraz, guztiak taldeko protagonista sentitzen gara, momentu batean

batzuk eta bestean beste batzuk, baina guztiak gara garrantzitsuak taldearendako, eta hori da Gernikak duen gauzarik onena, batera gaudela, oso ondo lan egiten dugula batera.

EuroCupean hurrengo arerioa Hungariako KSC Szekszard taldea duzue. Joaneko partida ilbeltzaren 22an, asteazkenean jokatuko duzue, etxean, eta itzulikoa ilbeltzaren 29an Hungarian.

Larunbatean Emakumeen Endesa Ligako partida jokatuko

dugu 18:30ean Embutidos Pajariel taldearen kontra, Gernikan, eta une honetan ligako partida horri begira gaude; igandetik aurrera izango dugu buruan EuroCupa, eta partida hori oso ongi prestatzen saiatuko gara. Asteazkenean, Gernikan, joaneko partida on bat egiten saiatuko gara, gero bueltako partida Hungarian jokatzea gatzago izango baita. Partida asko ditugu, txapelketa ezberdinak, eta unean-unean hurrengo partidari begira gaude; uste dut hau dela taldea hain ongi joatearen gakoetako bat, hurrengo partidari begira egotea.

Emakumezkoen Endesa Ligan oso ongi ari zarete.

Bai, sailkapenean 4. tokian gaude (28+3 puntu) eta liderra Spar Citylift Girona da (30-1 puntu). Oso liga zorrotza da gurea, sailkapena estu dago eta Lointek Gernikan daramagun ibilbidea oso ona da. Ez da bakarrik garaipenak lortzea, baizik eta zer nolako garaipenak lortzen ditugun. Girona liderrari bere etxean irabazi genion, eta ligako ia gainontzeko talde guztiek esaten dute Gernika talde garrantzitsua dela. Hori arro egoteko modukoa da. Beraz, bide honetan jarraitzen badugu, ez gara txarto egongo. **Espainiako emakumezkoen ligan ikusle gehien biltzeak eragina izan du?**

Bilbao Arenako ikusleen errekorrak oihartzuna izan du, eta kanpoan jokatzen dugunean "partida on" gisa saltzen dute gure kontrako partida. Ez bakarrik taldea, Gernika kluba urtetik urtera hobetzen ari da, gure taldearen garaipenaren atzean jende asko baitago: junta, entrenatzaileak, harrobia... Jokalariok kantxan jokatzen dugu eta gure erronka ahal dugun onena ematea da, baina taldean jende asko dago lanean. Emakumezkoen euskal saskibaloia gora doa. Esan nahiko nuke, emakumezkoen kirolak dinamika honetan segitzeko komunikabide guztien laguntza behar dugula; emakumezkoen kirola saltzen badugu, jendeak erosiko du eta ohitura hartuko du emakumezkoen kirola ikusteko. Nik beti hedabideei esaten diet euren lana oso garrantzitsua dela guretako, eta beti eskatzen diet berdina, gu hor agertzea.

Asteartean Erreginaren Kopako zozketa egin zen, eta hain zuzen ere zuei beste talde euskaldun ba-

ten kontra aritzea tokatu zaizue, Gasteizko Araskiren kontra, mar txoaren 5ean, Salamancan.

Entrenamenduaren ondoren batera egon ginen Erreginaren Kopako zozketa ikusten. Araski taldearen kontra aritzea tokatu zaigu eta, hortaz, Erreginaren Kopako final laurdenetan euskal derbia izango dugu. Badakigu nolakoak diren euskal derbiak: gogorra izango da, baina ligan Gasteizen jokatu genuen lehenengo partida irabazi genuen eta horrek lasaitasuna ematen digu. Asko geratzen da Koparako, baina nolanahi ere, partida interesgarria izango da; badakigu Araskikoek nolako nortasuna duten eta saiatuko gara ahalik eta partida onena egiten finalerdietara sailkatzeko.

Urte dezente daramazu Gernikan eta oraindik sasoi betean zaude, gustura, jokoaz gozatzen eta kapitain lanetan taldea primeran ordezkatzeko.

Denbora asko daramat Gernikan, nire bigarren etxea da baina esan beharra dut airea hartu behar dudanean nire familia eta lagunak Altsasun daudela eta hara joaten naizela askotan. Guaixekoei eskertu nahi nizuke beti alboan egoteagatik, nirekin hitz egiteko prest. Nire bigarren etxea Gernika izan arren, Altsasun nago eta sakan-dar moduan harro sentitzen naiz hangoa izateaz.

Kapitaina zaren aldetik komunikabide askok zurekin hitz egin nahiko dute eta agenda goraino izango duzu...

Beno, batzuetan hori gertatzen da, baina badakigu zer nolako lana dugun. Nik taldekideei beti esaten diet, ez gurela bakarrik jokalariek, gehiago izan behar dugula. Sozialki eta kulturalki zer edo zer aldatu behar badugu edo ahal badugu, behintzat saiatu behar dugula. Hedabideek lekua ematen badigute guk ere eman behar diegu, eta horretarako gaude.

Jarraitu Lointek Gernika Bizkaia-ekin historia egiten Naiara, ongi joan daitezela gauzak bai ligan eta baita EuroCupean ere.

Milesker!

"EMAKUMEZKOEN EUSKAL SASKIBALOIA GORA DOA; SEGITZEKO KOMUNIKABIDEEN LAGUNTZA BEHAR DUGU"

Igor Arrieta Espainiako ziklo-kros txapelduna

ZIKLO-KROSA Junior mailako Espainiako Ziklo-kros Txapelketa irabazi zuen uharte arakildarrak Pontevedran, eta Nafarroako selekzioan aritu ziren sakandarrek ere maila bikaina eman zuten. Eliteetan Gorka Izagirre hirugarrena sailkatu zen

Asteburuan Espainiako Ziklo-kros Txapelketa jokatu zen Pontevedrako Illa das Esculturasen (3,1 km). Bertan 7 txirrindulari sakandar aritu ziren Nafarroako selekzioarekin –Igor Arrieta, Iker Mintegi eta Jon Erdozia juniorrak eta Aimar Tadeo, Mikel Regil, Mikel Uncilla eta Nahia Imaz kadeteetan– eta horretaz gain, Aritz Oiarbide kadetea bere kabuz aritu zen, Sakana Group-Aralar taldeko kide; eta elite mailan Gorka Izagirre ziordiarra Astana taldeko ordezkari ibili zen. Beraz, guztira 8 ordezkari izan genituen eta aipatzekoa da sekulako maila eman zutela txirrindulari sakandarrek.

Horren isla, gizonzkoen junior mailako urrezko domina Sakanara etorri zen. Sakana Group-Aralar taldeko Igor Arrieta Lizarragak merezitako garaipena lortu zuen, helmugara bakarrik iritsi eta gero (46:13). Irteera ona egin zuen Uharte Arakilgo txirrindulariak, lehenengo postuan kokatu zen, eta lehen itzulian Aitzol Sasietari, Alain Suarez, Sergio Diego, Miguel Diaz eta Jorge Fernandezekin batera talde txoa osatu zuen lasterketa buruan. Hirugarren itzulian Arrietak erritmoa bizkortu eta tartea atera zien gainontzeko txirrindulariei; eta, azkenean,



Arrietak aitortu digu oso pozik dagoela urrezko domina lortu izanagatik. FEDERAZIOA

Uharte Arakilgo txirrindulariak ez zuen inolako arazorik izan buruari eutsi eta garaipena lortzeko. Arrietak 31 segundo atera zizkion Euskadi selekzioako Aitzol Sasietari eta 33 segundo Cantabriako selekzioako Alain Suarez. Iker Mintegi 38. postuan sartu zen (51:43) eta Jon Erdozia 67. postuan (47:17).

Igor Arrietak sekulako ziklo-kros denboraldia ondu du. Aritu den lasterketa guztiak irabazi ditu, Nafarroako Txapelketa tartean, Lezaman jokatuak Euskadiko Txapelketan izan ezik.

Proba horretan txapeldunordea izan zen, Aitzol Sasietaren atzetik. Denboraldiari Espainiako txapelketako urrezko dominarekin jarri zion ginda.

“Oso lasterketa azkarra izan da hasieratik. Banekien irteera oso garrantzitsua zela, zubi arris-

"AURREAN KOKATU ETA TARTETXOA ZABALDU DUDANEAN, ERRITMOA HARTU ETA GUSTURA ARITU NAIZ"

kutsua zegoelako. Ongi atera eta aurrean kokatu naiz, eta taulak saltatu ondoren tartetxoa zabaldu dudanean, nire erritmoa hartu eta lasaitasunez egin diot aurre lasterketari” azaldu zuen Igor Arrietak Espainiako Ziklo-kros Txapelketa irabazi eta gero. Oso pozik dagoela aitortu digu uhartearrak eta ez da gutxiagorako. Orain atsedean hartuko du errepideko denboraldia hasi baino lehen. Aurten juniorren 2. urteari ekingo dio Arrietak.

Kadeteetan Tadeo eta Imaz lehen sakandarrek

Kadeteen mailan ere ongi ibili ziren gureak. Gizonzkoetan Valenciako selekzioari Ivan Gomar gailendu zen (32:10). Aimar Tadeo lakuntzarra izan zen lehen nafarra, 17. postuan (33:57), 1:47ra, lan ederra egin eta gero. Mikel Regil 31. tokian iritsi zen helmugara (35:00) eta Mikel Uncilla 38. (35:32). Sakana Group taldeko kide moduan lehiatu zen Aritz Oiarbide etxarriarra, Nafarroako selekzioetik kanpo, eta 63. postuan sartu zen (37:06). Emakumezkoetan Galiziako Laura Maria Mira izan zen onena (28:36), eta Nahia Imaz altsasuarra 23. tokian iritsi zen helmugara (31:18).

Nafarroako Ziklo-kros selekzioan oso pozik daude txirrindulari guztiek egindako lanarekin.

Gorka Izagirrearen brontzezko domina

Eliteen mailako Espainiako Ziklo-kros Txapelketa igandean jokatu zen. Felipe Orts (Teika) zen faborito nagusia eta, Kevin Suarez (Nesta) eta Gorka Izagirre (Astana) txirrindularien artean erabaki zen podiuma, aurreikusten zen bezala. Felipe Orts zen faborito nagusia eta bera gailendu zen, nagusitasun osoz (1:03:59).

Bere atzean lehia estuagoa egon zen, eta, azkenean, Kevin Suarez bigarrena 34 segundora sartu zen, eta Gorka Izagirrek brontzeko domina lortu zuen, 51 segundora sartu eta gero.

Izagirrek Berria egunkarian azaldu zuenez “ez dut irabazi, baina lasterketa txukuna eta egokia egin nuen, akats handirik gabekoa. Lasterketa polita izan zen, eta bigarren eta hirugarren posturako lehia handia egon zen”.

Izagirrek amaitutzat eman du ziklo-kros denboraldia. Munduko Txapelketara joateko eskaintza egin diote, otsailaren 2an gizonzkoen eliteko proban aritzeko, baina ezetz erantzun du. Guztira 11 ziklo-kros lasterketetan aritu da eta 4 irabazi ditu, tartean Euskadiko eta Gipuzkoako txapelketak, baina Berria egunkarian gaineratu zuenez “ni errepideko txirrindularia naiz eta hau gehigarri bat da. Hala ere, lasterketetan dena ematen dut”. Ziklo-krosa neguko prestaketaren zatitzat hartzen du Izagirrek, baina errepidea eta ziklo-krosa oso ondo uztartu behar direla dio.



Gorka Izagirre helmugan. ASTANA

Urtasunen aurkezpena

TXIRRINDULARITZA Kern Pharma talde berriak UCI kontinental mailan debutatuko du. Galibier Kirol Elkarteko Lizarte afizionatuen taldetik sortutako taldea da, eta Manolo Azkona da presidentea, Juanjo Oroz manager nagusia eta Pablo Urtasun urdiaindarra kirol teknikaria. Asteazkenean egin zuten aurkezpena, Kern Pharma babesle nagusiaren egoitzan, Terrasan.



KERN PHARMA TEAM

Santa Colomaren kontra errebantxa hartzera

ARETO FUTBOLA Asteartean Errege Kopako final zortzirenetan Santa Colomak 9 eta 2 irabazi zion Osasuna Magna Xotari eta talde berdea Errege Kopatik kanpo geratu da. Gaur, ligako partidari, nafarrek Santa Coloma hartuko dute, errebantxarako prest

Asteartean Errege Kopako final zortzirenetako partidak jokatu ziren. Osasuna Magna Xotak Industrias Santa Coloma taldearen kontra jokatu zuen Badalonan, eta ezusteko galanta gertatu zen, berdeak Errege Kopatik kanpo geratu baitziren, gol zaparrada ederra jaso eta gero (9 eta 2).

Hasieran paretsu ibili ziren bi taldeak, 9. minutuan Santa Colomako Bruno Petryk ate berdea zulatu zuen arte. 3 minutu beranduago, bi gol segidan sartu zituen Santa Colomak. Atsedenaldirako gutxi falta zela, laugarren gola egin zuen Santa Colomak. 4 eta 0, berdeak konturatzerako. Eric Martelek gol bat sartu zuen, baina atsedenaldira joan baino lehen bosgarrena sartzeko aukera izan zuten kataluniarrek. Bigarren zatian Osasuna Magna Xotaren erantzuna espero zen, baina ez zen iritsi. Nahiz eta Roberto Martilek talde berdearen bigarren gola sartu, kataluniarrek finago aritu ziren eta 9 eta 2 irabazi zuten, Osasuna Magna Xota Errege Kopatik kanpo utziz.

Jokalaria berdeak deseroso aritu ziren, ez ziren partidari sartuta egon, eta halako gol zaparrada jaso eta Errege Kopatik final zortzirenetan erortzea ez



Badirudi Dani Saldise Inter Movistarrera joango dela. JESUS AGUIRRE

zen batere gozoa izan talde irurtzundarrarendako.

Gaur, errebantxa

Gaur, ostirala, atzera ere Santa Colomaren kontra aritu behar da Osasuna Magna, baina kasu honetan ligako partidari. Errebantxa lortzeko aukera dute berdeek gaur 20:30ean Anaitasunaren jokatu den partidari.

Lehen mailako liderra Movistar Inter da (41 puntu). Osasuna Magna Xota 6. postura jaitsi da (32 puntu) eta Santa Coloma 12. tokian dago sailkapenean.

jarraituko duela eta hurrengo denboraldian Movistar Inter talde ahaltsuan ariko dela. Movistar Interrek eta Dani Saldisek ez dute albistea konfirmatu, baina egiazkotzat jotzen da. Osasuna Magnarendako bi galera oso garrantzitsuak izango dira, eta talde irurtzundarra Movistar Inter klubaren jokatzeko moduarekin mindua dagoela filtratu da.

Dani Saldise irurtzundarrak 24 urte ditu eta Xota klubeko etxeko jokalaria da. 2013-2014 denboraldian debutatu zuen talde nagusiarekin. Imanol Arregiendako jokalaria ezinbestekoa da, gakoa. Kalitate handiko jokalaria da, gola egiteko ukitu bikaina duena. Horrela, talde handien interesa piztu du.

Dani Saldiseri aurreten bukatzen zaio Osasuna Magna Xotarekin duen kontratua. Kontratua berritzeko Tatono Arregik gidatzen duen klubak egindako eskaintzak ez ditu onartu, nahiz eta baldintza ekonomikoak hobetu, eta badirudi hurrengo denboraldian Movistar Inter taldean ariko dela aurrelari irurtzundarra. Nonbait, Xota minduta dago jokalaria kontratatzeke Movistar Inter klubak izan dituen moduekin, jokalaria libre kontratatuko baitu, klubari traspasoa ordaindu gabe. Kolpe latza izango da Irurtzongo klubarendako.

Ion Cerviño selekzioz

Espainiako areto futboleko 17 urtez azpiko selekzioan aritzeko deitu dute Xotako Ion Cerviño. Selekzioak lagun arteko bi partida jokatu ditu Serbian ilbeltzaren 19 eta 23 tartean. 16 urte ditu gazte irurtzundarrak eta Xotako jubenilean aritzen da, baina 15 urte zituela Osasuna Magnarekin debutatu zuen.

FUTBOL PREFERENTEA

14. JARDUNALDIKO EMAITZAK		
Lagun Artea - Etxarri Aranatz		3-1
SAILKAPENA		
PREFERENTEKO 1. MULTZOA		
1	Beti Casedano	27
2	Lakuntzako Lagun Artea	27
15	Etxarri Aranatz	14
HURRENGO JARDUNALDIA		
LARUNBATEAN		
16:30	Itaroa - Lagun Artea (<i>Areta</i>)	
16:00	Etxarri - Beriain (<i>San Donato</i>)	

Derbiko puntuak Lakuntzan

Lagun Arteak eta Etxarrik jokatuak derbia oso lehiatua izan zen, eta harmailetako giroa, ona. Hasieran Etxarrik dominatu zuten, baina lakuntzarrek ongi eutsi eta 29. minutuan Unai Zubiriak Lagun Artea aurreratu zuen. Bigarren zatian lakuntzarrek hartu zuten agintea, eta Unai Zubiriak bigarrena sartzea lortu zuen. Partida nahasi egin zen, eta penaltiz sartu zuen Unai Zubiriak Lagunen hirugarrena. Etxarrik ez zuen etsi eta Javierrek gorritxoaren markagailua mustu zuen, baina 3 puntuak Lakuntzan geratu ziren.

ERREGIONALA GIZONAK

14. JARDUNALDIKO EMAITZAK		
Iruña B - Altsasu		4-0
SAILKAPENA		
ERREGIONAL MAILAKO 2. MULTZOA		
1	Universidad de Navarra	34
11	Altsasu	10
HURRENGO JARDUNALDIA		
LARUNBATEAN		
16:15	Altsasu - Univ. Navarra (<i>Altsasu</i>)	

Altsasuk liderra hartuko du bihar

Iruña taldearen kontrako partidari hasieran Altsasuk hartu zuen baloia kontrola eta gorritxoek gogotsu ekin zioten partidari, baina gutxika Iruña nagusitu zen eta 4 gol sartu zizkion Altsasuri. Bihar liderra dute aurkari.

ERREGIONALA EMAKUM.

16. JARDUNALDIKO EMAITZA		
Peña Sport - Altsasu		2-0
SAILKAPENA		
EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA		
1	Castejon	43
7	Altsasu	24
HURRENGO JARDUNALDIA		
IGANDEAN		
16:15	Altsasu - Lourdes (<i>Dantzaleku</i>)	

Altsasuk Lourdes hartuko du

Peña Sporten kontra saiatu ziren Altsasuko neskak, baina ezin. Etzi Lourdes taldea hartuko dute Altsasun.



SAKANAKO TOPAKETAK

BENJAMINAK. 4. JARDUNALDIA		
IGANDEAN OLAZTIN		
10:00	Urdiain - Etxarri Aranatz	
11:00	Aralar Mendi - Altsasu A	
12:00	Altsasu B - Betelu	
13:00	Altsasu C - Sutegi	
Kimuen mailan ez dago jardunaldirik		

Benjaminak lanera

Gabonetako oporraldiaren ondoren, Sakanako Futbol Topaketen benjaminen mailako jardunaldia jokatu da igandean Olaztin. Kimuen mailan asteburu honetan ez da jardunaldirik jokatu.

ELOMENDI TXAPELKETA

12. JARDUNALDIKO EMAITZAK		
Izalsa - Zaldia		2-4
SAILKAPENA		
ELOMENDIKO FUTBOL TXAPELKETA		
1	Barasoain	30
4	Zaldia	25
HURRENGO JARDUNALDIA		
LARUNBATEAN		
Z/G	Zaldia - Basati (<i>Lekunberri</i>)	

Zalduak Basati hartuko du

Izalsaren kontra garaipena lortu eta gero, bihar Basati dute aurkari arakildarrek.



Aurreko urteko La Peluso martxako irteera. LA PELUSO

La Peluso bizikleta martxarako izena ematea zabalik

TXIRRINDULARITZA Maiatzaren 9an jokatu da, baina lehenbailehen izena ematea gomendatu dute

Irurtzun Bi Ahizpe Txirrindularitza Elkarteko kideek La Peluso martxa antolatu dute, bigarrenenez. Maiatzaren 9an izanen da, goizeko 8:30ean Irurtzongo Foru Plazatik abiatuta. Bi ibilbide izanen dira, luzea, 138 km-koa eta laburra, 89 km-koa. Ibilbideen informazioa eta trackak eskuragarri daude La Pelusoren web orrialdean (www.lapeluso.com).

Iaz antolatu zuten lehenengoz La Peluso martxa. Peluso, Irurtzun txirrindularitza sustatu zuen Jesus Legarraren ezizena zen, eta horregatik jarri zioten bere izena martxari. 965 txirrindularik eman zuten izena eta guztiz arrakastatsua izan zen. Atolakuntzak Irurtzun txirrindularitza sustatu zuten Jesus Legarra "Peluso" eta Pello Alzueta zirenak eta Antonio Martinez omendu zituen, eta horretaz gain Irurtzun Reynolds taldea sortu zeneko 40. urteurre-

na buruan, atzera egin eta garai haiek gogoratu zituzten. Besteak beste, Migueleta Pruden Indurain, Arroyo, Sanz, Gorospe, Vidales, Esparza, Errea, Etxabarri, Ocaña, Atxa eta Iza igo ziren oholtzara.

Duen arrakasta ikusita, aurtur ere Irurtzongo martxan aritu nahi dutenei lehenbailehen izena emateko gomendioa egin die antolakuntzatik, dagoeneko aurreikusitako kopurutik erdiak baino gehiago eman duelako izena. 18 urtetik gorako txirrindulariek eman dezakete izena, www.rockthesport.com web gunean. (martxoaren 8a baino lehen, federatuek 20 euro eta federatu gabekoek 25 euro eta hortik apirilaren 30era arte, federatuek 25 euro eta federatu gabekoek 30 euro). Bestalde, La Pelusok txirrindularitza ekipamendu ederra diseinatu du, eta izena ematekoan aipatu maillot eta culotteak erosteko aukera dago.

SASKIBALOI CBASK-ek galdu egin zuen Cronosen kontra

Autonomien Arteko 2. mailan, CBASK-Jatormanek Miranda de Ebron jokatu zuen, Cronos Novadiet taldearen kontra. Txukun ibili ziren altsasuarrak, baina azkenean 10 puntuko aldearen gainetik galdu zuten (71 eta 61). Club Baloncesto Cenicero da liderra (23 puntu) eta CBASK-Jatorman 9.a da (15 puntu). Bihar, larunbatean, CBASK-Jatorman taldeak

Club Baloncesto Cenicero liderra hartuko du Zelandin, 18:00etan.


Bestalde, Nafarroako Seniorren 1. Maila Autonomikoan CBASK-IFUEL-ek galdu egin zuen eta bihar, larunbatean, Valle de Egues taldea hartuko du Zelandin, 16:00etan. Eta emakumezkoen Nafarroako Kadeteen 2. mailako 5. multzoan Altsasuko CBASK-ek 20 eta 90 irabazi zion Teresiana-si eta lider jarraitzen du. Bihar, 10:50ean, Navarro Villoslada izanen dute aurkari Zelandin jokatu den partidaren.

GUAIXE ETA BELEIXE ZURE NEGOZIORAKO ERAKUSLEHIO



Guaixe astekaria
3.200 ale astero
20.000 irakurle

Beleixe irrati
Egunero saioa
goizero



guaixe.eus
100.000
erabiltzaile urtean

Tarifak: guaixe.eus/publizitatea
publi@guaixe.eus
948 564 275



Martija, Ezkurdia, Irribarria eta Rezusta, Buñuelgo material aukeraketan. ASPE

Puntu garrantzitsuak sakandarrendako

PILOTA Binakako Txapelketan lider jarraitzen dute Jakak eta Zabaletak, eta etzi Altuna eta Galarza dituzte aurkari. Ezkurdia eta Martija bigarrenak dira puntu garrantzitsua lortu eta gero, eta gaur Buñuelen jokatu dute Irribarriaren eta Rezustaren kontra

Binakako Pilota Txapelketako hasierako ligaxkako 9. jardunaldia jokatu da asteburu honetan. Estreinakoz Buñuelek lehen mailako pilota partida bat hartuko du, gaur, ostiralean Ezkurdia eta Martijak Irribarriaren eta Rezustaren kontra jokatu dute partida, hain zuzen ere (22:00, ETB1). Pilota jaialdiak ikusmin handia piztu du, dagoneko sarrera guztiak saldu dira eta sekulako giroa espero da.

Asteazkenean egin zuten material aukeraketa, eta ez zen aparteko arazorik egon. Julen Martijak Euskadi Irratian aipatu zuenez, Buñuelgo frontisa ongi zainduta dago baina zorua "oso azkarra" da. "Gaur frontoia oso

hotza zegoen eta ez da arazorik egon, ea ostiralean jende askorekin nola erantzuten duten pilotek" gaineratu zuen Etxeberriko atzelariak.

Ezkurdia eta Martija bigarrenak dira Binakako sailkapenean, (5 puntu), aurreko larunbatean Labriten jokatuak partida gogorrean Altuna ordezkatu zuen Elezkanori eta Ladis Galarzari 22 eta 18 irabazi eta gero. Partida zaila izan zen sakandarrendako, Ezkurdia gripe antza izan eta gero ez baitzegoen bere onenean. Elezkano ikusgarri aritu zen eta 10 eta 16 aurreratu ziren bera eta Ladis, baina gogor eutsi zuten sakandarrek, partidari buelta eman zioten eta Ladis Galarzaren

beheraldia aprobetxatuz, azkenean bosgarren puntua lortu zuten, urrezkoa. Finalerdietarako sailkapena ziurtatzeko euren 6. puntua lortu nahi dute gaur Buñuelen. Irribarriak eta Rezustak, aldiz, 3 puntu dituzte eta Binakakoan aukerak izateko irabazi beharra dute, bai ala bai. Ez daude bere onenean, baina gipuzkoarrek egoerari buelta emateko gogoaz azaldu dute, eta partida ikusgarria espero da gaur Erriberan.

Altunak jokatu du

Igandean Jakak eta Zabaletak Altuna eta Ladis Galarza izango dituzte aurkari Eibarko Astelenan (17:00, ETB1). Aurreko astean

baja hartu zuen Altunak, ezker eskumuturra mindua zuelako, eta Elezkanok hartu zuen bere tokia, "luxuzko ordezkoa", Amezketakoaren esanetan. Baina Altunak frontoian probatu du, "sentsazio onak" dituela adierazi du eta igandean Jakaren eta Zabaletaren kontra jokatzeko moduan dagoela erabaki du. "10 egun geldirik egon naiz eta ez dut uste igandera ehuneko ehuneko iritsiko naizenik, baina eskumuturra hobeto sentitzen dut eta hori da garrantzitsua" azaldu zuen Altunak.

Jakak eta Zabaletak jokatuak 8 partidetatik 7 irabazi dituzte eta momentuz txapelketako onenak dira. Larunbatean 16 eta 22 irabazi zieten Irribarriari eta Rezustari, kontrako 9 eta 1-ari buelta emanez, eta garaipen bide horretan jarraitu nahi dute. Sasoi betean daude biak: Zabaleta atzean sendo, berme bikaina, eta Jaka erasokor aurrean. Igandeko partidarako akaso faboritoak dira, baina Altunak eta Ladis Galarzak ez dizkiete gauzak baxerik erraztuko. "Txapelketa honetan aurkari guztiak dira zailak" nabarmendu zuen Altunak. Sailkapenean egun Ezkurdia eta Martijak dute bigarren postua eskuratzeko eta puntu berdinketa apurtzeko Altunak eta Galarzak igandean jokoan dagoen puntua beharrezkoa dute. Beraz, lehia oso ikusgarria espero da Beotibarren.

Beste partidak

Bestalde, larunbatean, Mungian, Olaizola II.a-Urrutikoetxea Artola-Imazen kontra ariko dira (18:00, ETB1) eta larunbatean ere, baina Labriten, Bengoetxea VI.ak eta Mariezkurrena II.ak Laso eta Albisu izango dituzte aurkari.

Maite Beregaña hirugarrena Araxesen

ATLETISMOA Uhartearra XV. Aritz-Betelu lasterketan aritu zen eta podiumeko 3. kuxara izan zen

Igandean 15. Aritz-Betelu krosa jokatu zen Betelun, Araxes ibaia- ren ertzetan burututako 7,7 km-ko lasterketa herrikoa. Lehenik eta behin 90 neska-mutiko kategoria txikietako lasterketetan aritu ziren, eta ondoren ekin zitzaion proba nagusiari.

167 korrikalarik hartu zuten irteera, eta bi buelta ezberdin egin behar izan zituzten, Arribera zihon laburrago bat aurrena eta Atallura iristen zen beste bat, luzeagoa, ondoren, asfaltoa eta lurra konbinatzen zituztenak. Irteera hartu zutenetik 148k lortu zuten proba osatzea, goiz eguzkitsua baina hotzean.

Lasterketa oso lehiatua izan zen, eta azkenean Ibon Arangu- ren zestoarra izan zen txapelduna (25:36), Adur Ruiz de Azua ormaiztegiarrari 4 segundo (25:40) eta Raul Gomez lasartearrari 14 segundo (25:50) ateraz. Emakumezkoetan ere mugimendu handia egon zen lehen bi postuetan bereziki, baina Cabanillasko Aitana Gilek irabazi zuen (29:38), aurreko urtean bezala, Ibarrako Maialen Muñoz 19 segundo aterata (29:57). Hirugarrena Maite Beregaña uharte arakildarra izan zen (31:02), irabazlearengatik minutu eta 24 segundora, podiuma osatuz.

Iosu Bergera Garfen

PILOTA Garfe enpresak 2020ko taldea aurkeztu zuen Bodegas Taron upategietan. 14 pilotarik osatuko dute Garfeko plantila, Titin beteteranoa buru dela. Tartean dago Iosu Bergera (1990, Arruazu). Arruazuko atzelaria sasoi betean dago, Garferekin kontratua berritu du eta denboraldi ona egitea eta jaialdietan mailarik onena ematea du erronka.



GARFE

Sakandarrak Aritz Betelun

Gizonak

1. Ibon Aranguren (Zestoa)	25:36
42. Tomas Guirado (Alts)	30:39
60. Unai Razkin (Irur)	32:41
80. Santi Galarza (Iturm)	34:01
88. Iñaki Azkona (Irur)	34:36
92. Kaxi Estarriaga (Etx)	35:02

Emakumeak

1. Aitana Gil (Cabanillas)	29:38
3. Maite Beregaña (Uhar)	31:02
7. Haizea R. De Alda (Alts)	32:51



Biatloian duela bi urte hasi zen Olga Garziandia, eta aurki Mundialetan ariko da. UTZITAKOA

"Suitzan jokatu den Biatloi Mundialean aritzeko gogotsu nago"

OLGA GARZIANDIA IJURKO IPAR-ESKIATZAILEA ETA BIATLOI KIROLARIA

BIATLOIA Ilbeltzaren 24an Suitzako bidea hartuko du Olga Garziandia etxarriarrak, ipar-eskia eta tiroa lotzen dituen Munduko Biatloi Txapelketan aritzeko

Maidar Betelu ETXARRI ARANATZ

Elurrari lotuta dago Olga Garziandia Ijurko gazte etxarriarraren bizitza. Txikitatik ipar-eskiatzailea da, elurra ez dagoenean rollerskian aritzen da, eta duela bi urte biatloian hasi zen. Hain zuzen ere, aurki Suitzako Lenzerheiden jokatu diren Biatloi Mundialetan parte hartuko du eta gogor entrenatzen ari da baina gurekin egoteko tartea hartu du.

Noiz hasi zinen eskiatzen?

Hiru urterekin. Betidanik familiarekin neguan astebururo eskiatzera goaz Pirinioetara. Somport, Candanchu, Baqueira-Beret... pista horietan entrenatzen dut. Ipar-eskian aritzen naiz. Ipar-eskian bi modalitate daude, klasikoa eta skatinga. Klasikoan aztarna edo elur-markea bat jarraitzen duzu eta eskiak paralelo doaz, eta skatingean

patinetan bezala aritzen zara; eskiak V moduan doaz eta patinatzearen antzeko mugimenduak egiten dira. Nire gustukoena skatinga da. Udan eskia ezin denez, entrenamendu bezala rollerskian aritzen gara, gurpiltxoak dituzten eski antzeko batzuetan. Etxarri Aranatzenean rollerski txapelketa antolatu zuen gure taldeak, Uharte Ipar Eski taldeak.

Baina orain negua da. Aurtengo ipar-eski denboraldia hasi da?

Bai, aurreko asteburuan Espainiako Ipar-Eskiko lehendabiziko bi lasterketak izan genituen

"BIATLOIA IPAR-ESKIA ETA TIROA BATZEN DITUEN KIROLA DA; DUELA BI URTE HASI NINTZEN"

Orrin, Baqueira-Bereten. 18 urte ditut eta junior mailan aritzea dagokit, eta sentsazioak onak izan ziren lehendabiziko bi karrerak izateko, 5. postuan sailkatu bainitzen. Guztira 10 proba dira, eta asmoa goian egotea da, ea posible den.

Biatloian ere aritzen zara. Zer da biatloia?

Ipar-eskia eta tiroa batzen dituen kirola. Bizkarrean erriflea duzula, ipar-eskian distantzia osatu, eta zirkuituan 2 edo 2,5 km eskia eta gero, tiro-zelaian lurrean etzan eta hor 5 bala jaurtiki behar dituzu 50 metro-ra dauden 5 dianetara, eta ondoren, erriflea bizkarrean hartu eta berririo eskia beharra duzu, helmugara iritsi arte. Behin nire klubeko jendeak parte hartzen zuen biatloi proba bat ikusi nuen, gustatu zitzaidan eta entrenatzen hasi nintzen, duela bi urte.

Aurretik noizbait tiroan aritu izana zinen? Etxean tiroan aritzen den norbait al duzu?

Nire osabak ehiztariak dira, baina tiroak ez du ehizarekin zerikusirik (kar, kar...). Tiroan zeretik hasi nintzen, duela bi urte, 16 urte nituela.

Eta zer moduzko tiratzailea zara?

Beno, denborarekin hobetzen noa. Iruñean entrenatzen dut tiro-zelai batean, eta punteria baldin baduzu, entrenatzearen poderioz hobetzen duzu. Erabiltzen ditugun errifleak bereziak dira; eskiatzen zoazenean bizkarrean eraman behar dituzu, eta helduleku berezia dute. Horretaz gain, elurra egiten badu elurra erriflean ez sartzeko tapa batzuk dituzte. Ezberdinak dira.

Arma-lizentzia izan beharko duzu.

18 urteraino ezin duzu erriflea zure izenean izan; 16 urterekin azterketa bat egin dezakezu eta erriflea erabiltzeko baimena lortzen duzu, eta bete beharreko arauak ikasi, baina erriflea lizentzia duen adin nagusiko baten izenean egon behar da. Eta 18 urte betetzerakoan beste azterketa bat egiten dizute, arma lizentzia lortzeko. Nik jada arma-lizentzia badut. Azterketa horien helburua da segurtasuna bermatzea, armak nola izan, nola zaindu eta nola gorde behar diren, arautegi guztia ikasteko. Izan ere, etxean armak kaxetan gordeta izan behar dira, eta inoiz ez kargatuak. Biatloian aritzeko bidaiak egiterakoan ere, beti kaxa batean itxita egon behar du errifleak, eta ezin da kargatua egon.

Aurki Biatloi Mundialean ariko zara. Hortaz, bi urtetan zeretik hasi eta Mundialetara iristea lortu duzu, hau marka...

Beno...(kar, kar), Suitzan jokatu da Munduko Biatloi Txapelketa, Lenzerheiden. Ilbeltzaren 24an hartuko dut Suitzarako bidea, eta 10 egun inguru emango ditut han. Junior mailan Espainiar estatutik ariko naizen bakarra izango naiz. Nazioarteko Biatloi Federaziotik duela hiru hilabete bidali zizkidaten Mundialetan izena emateko paperak; duela gutxi Es-

"BIATLOIAN HEMENDIK KANPO SEKULAKO MAILA DAGO. AHALIK ETA HOBEREN ARITZEA DA NIRE ERRONKA"

painiako Federazioaren baimena jaso dut eta guztia lotzen gaude orain. Esan didatenez, Argentinako taldekoekin egongo naiz bertan. Biatloi Mundialean aritzeko oso gogotsu nago.

Nola daramazu prestakuntza?

Astebururo eskiatzera normal noa eta bertan entrenatzen dut, eta aste honetan egun gehiagotan joango naiz tiroa entrenatzera. Eskiatzetik, fusila hartu eta lurrean etzateko trantsizio horiek ahalik eta azkarren egiteko ere entrenamenduak daude; badaude ariketa batzuk "tiro en seco" izenekoak, entrenamendua etxean egin ahal izateko. Papezko diana bat behar duzu, eta kontua da etxean tiro mugimendu horiek egitea baina balarik gabe. Eta trantsizioko mugimenduak praktikatuz; erriflea jarri kendu, jarri, kendu, lurrean etzan, zutitu, erriflea jarri... behin eta berriz.

Duela bi urte hasi zinen biatloian eta urte horretan bertan IBU Junior Cup Biatloi Txapelketan aritu zinen.

Lehenengo aldia zen biatloi txapelketa batean aritzen nintzela eta nahiko urduri nengoen, baina esperientzia oso polita izan zen. Ikastera eta kanpoan dagoen maila ikustera joan nintzen, eta izugarri disfrutatu nuen.

Hura abiapuntua izan zen eta orain Biatloi Mundialetan ariko zara, Lenzerheiden. Zein probatan hartuko duzu parte?

Junior mailan 100 kirolari baino gehiago ariko gara. Bi probatan parte hartuko dut, esprintean eta banakakoan. Esprintak 7,5 km-ko distantzia du (2,5 km-ko hiru saio), eta tarteka 2 tiro jaurtiketa egin behar dira. Bakarkako probak 12,5 km-ko distantzia du (2,5 km-ko bost eski saio, tartean 4 tiro jaurtiketekin). Ilbeltzaren 27an eta otsailaren 1ean ditut probak, eta sailkatuz gero lehen 60ak sailkatzen dira otsailaren 2an ariko nintzateke berriro.

Zer espero duzu?

Maila izugarria dago hemendik kanpo. Frantzia da faboritua, alde handiarekin, eta gero Norvegia eta Italia. Baina ni gogotsu nago eta ahalik eta hoberen aritzea da nire erronka. Senitartekoak ez dira nirekin etorriko, baina Biatloi Mundiala telebistako Eurosport 2 katean emango dute eta ikusiko naute. Onena opa dizugu, zortea alde izan dezazula!

Eskerrik asko!

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 17

ALTSASU Gazte agenda. Black stories.

18:00etan, Intxostiapuntan.

LAKUNTZA Xaxardi Iker Uriberen eta Joana Ziganadaren liburuaren aurkezpena. 18:30ean, ganboikuen.**ALTSASU** Dantzaz konpainiak eta Altsasu BHI eta Andra Mari ikastola ikastetxeetako ikasleek *Esclavos felices* ikuskizunaren emanaldia egingen dute. 19:00etan, lortia kultur gunean.**IRURTZUN** Paris 365 buruzko hitzaldia. 19:30ean, Pikuxar euskal txokoan.**IRURTZUN** *InsurgenZia* errepresioaren aurkako dokumentalaren aurkezpena. 19:30ean, kultur etxean.**LAKUNTZA** La Banda del Jefe Bigun taldearen kontzertua. 19:30ean, plazan.**ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ** Euskal presoak Euskal Herrira**kontzentrazioak.** 20:00etan, plazan.**ALTSASU** Altsasukoak aske kontzentrazioa. 20:00etan, udaletxe parean.**ALTSASU** *Dios mío, ¿pero que te hemos hecho... Ahora?* gaurkotasunezko filmaren emanaldia. 22:00etan, lortia kultur gunean.**LAKUNTZA** Sansaastinak. Antxon Saez DJ-aren emanaldia. 00:00etatik 07:00etara, Lagun Artea tabernan.

LARUNBATA 18

ALTSASU La Encina elkartearen txerri-hiltze tradizionala. 09:30etik aurrera, La Encina elkartearen.**ALTSASU** Emozioen kudeaketa ikastaroa. 10:30etik 13:30era, Intxostiapunta gazte gunean.**ALTSASU** Leire Urbeltz artistaren tailerra *Uholdeak:***Mahaira** programaren barruan. 11:00etatik 14:00etara, lortia kultur gunean.**ALTSASU** Gazte agenda. **Karterak** komikiekin tailerra. 18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.**ALTSASU** *Nola aterako ditugu presoak?* hitzaldia. Hizlaria: Sendoa Jurado Amnistiaren aldeko mugimenduko militantea. 18:30ean, Gure Etxea eraikinean.**IRURTZUN** Paris 365ren aldeko afari herrikoi irekia. 21:30ean, Pikuxar euskal txokoan.

IGANDEA 19

IRURTZUN Iorrrera ibilaldia egingen du Iratxo elkarteak. 08:00etan, egoitzaatik.**IRURTZUN** Paris 365aren material salmente: liburuak, diskoak, arropak... 10:00etatik 15:00etara, Pikuxar euskal txokoan.**ALTSASU** *Babian zaude* La**ALTSASU** *Uholdeak*, mahaira arte garaikidea Nafarroan zabaltzeko erakusketa ibiltaria. Uhart zentroa eta CAN fundazioa. Urtarrilaren 10etik otsailaren 2ra. Astelehenetik ostiralera 18:30etik 21:00etara, larunbatean emanaldia baino ordu bat lehenago eta igandetan 19:00etatik 21:00etara, lortia kultur guneko erakusketa gelan.**IRURTZUN** Saisol sormen tailerraren erakusketa. Abenduaren 26tik urtarrilaren 26ra. Pikuxar euskal txokoan.**Ilave maestra** producciones konpainiaren familiarterko ikuskizunaren emanaldia. 17:00etan, lortia kultur gunean.**ALTSASU** *Dios mío, ¿pero que hemos hecho... Ahora?* gaurkotasunezko filmaren emanaldia. 19:30ean, lortia kultur gunean.**ALTSASU** *El blues de Beale* zineforum filmaren emanaldia. 19:40ean, lortia kultur gunean.**ALTSASU** Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa. 20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 20

ALTSASU Pentsio duinen alde. Sakanako Pentsiodunen eta Adinduen Koordinakundea. 12:00etan, plazan.**ALTSASU** Errepresioaren kontrako astea: 2020ko plangintza egiteko asanblada irekia. 19:00etan, gaztetxean.

ASTEARTEA 21

IRURTZUN Pentsio duinen alde. Sasoiak-ek deitutako kontzentrazioa. 12:00etan, plazan.**ALTSASU** Pedro F. Razkin La Fuga abeslariaren *Pedradas* liburuaren aurkezpena. 19:00etan, Haritza tabernan.**ALTSASU** Errepresioaren kontrako astea. *Los fugados del fuerte de Ezkaba* Fermin Ezkietaren liburuaren aurkezpena. 19:00etan, Gure Etxea eraikinean.

OSTEGUNA 23

ALTSASU Errepresioaren kontrako astea. Mahai ingurua: @erreharria, Boro eta IndarGorri. 19:00etan, Gure Etxea eraikinean.**ALTSASU** 80 egunean zineforum filmaren emanaldia. 19:00etan, lortia kultur gunean.**ALTSASU** *Mujercitas* filmaren emanaldia. 19:00etan, lortia kultur gunean.


EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 17



Zeru hodeitsu agertuko da, bereziki egunaren lehenengo partean. Prezipitazio txiki-ertaina egingo du; arratsaldean atertzuz joango da.

Larunbata, 18



Euriaren presentzia handiagoa izango da egunak aurrera egin ahala. Eta arratsalde partean, elur mailak beherako bidea hartuko du nabarmen.

Igandea, 19



Ipar haizeak ekarriko duen tenperaturaren jaitsieraren ondorioz elurra egin lezake egun osoan zehar. Ekaitz mardulak izan ditzakegu gurean.

Astelehena, 20



Hotz handiarekin jarraituko dugu, baina ez da prezipitaziorik espero. Hau dela eta, ez du elurrik egingo, baina lainotuta egongo da.



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazaren itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com • www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU • Tel./fax: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



ESKELA



Juana Mayo Azkune

2020ko Urtarrilaren 14an hil zen Arrasaten, 90urte zituela

Bere oroimenez, azken agurreko hileta elizkizuna, urtarrilaren 19an, igandean, goizeko 11:00etan, Unanuko San Pedro elizan izango da. Etorriko zaretenoi eskerrik asko familiaren izenean.

Arrasate - Unanu

ESKELA



Eduarne Gasco Madrigal

Gure ondotik joan zara, baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan.

Zure kuadrilla
Etxarri Aranatzen, 2019ko abenduaren 23an

URTEURRENA



Jose Ramon Lopetegi

(l.urteurrena)

"Hutsune haundiye utzi uzu, nola bete bille gode guañik"

Bere oroimenez, urtarrilaren 19an, igandean, goizeko 11:00etan Lakuntzako elizan urteurren meza ospatuko da.

Itxekuek
Lakuntza

IRAGARKI SAILKATUAK

IKASTAROA

Olatzagutiako guraso eskola: Gurasoei zalan-tza asko sortzen zaizkie, eta ongi ari ote diren galdetzen diote euren buruari. Halakoez hizketatzeko antolatutako dute Burunda mendebaldeko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak eta Akelarre ludotekako guraso eskolak. Ilbeltzaren 31n, Otsailaren 28an martxoaren 27an, apirilaren 24an eta maiatzaren 29an 09:30etik 11:30era ludotekan elkartuko dira. Izena emateko 948 467 662 telefonora host egin hilaren 27a baino lehen.

LEHIAKETA

12.elkar ilustrazio eta lpuin lehiaketa mar-txan da: 4 urtetik 16 urtera bitarteko haur eta gazteek parte hartu dezakete. Sari ederrez gain, ikastetxei zuzendutako opari bereziak izango dira. Lanak aurkezteko epea apirilaren 17a arte izango da. Informazio

gehiago www.elkar.eus-en, lehiaketa@elkar.eus helbidera idatzita edo 943 310 301 tfnora deituta.

OHARRAK

Sei elkarterako boluntarioak: Sei elkarterak bakarrik dauden adingabe atzeritarrekin astean bi ordu egoteko 21 urte-tik gorako boluntarioak behar ditu: asteartetan Iturmendin eta ostegune-tan Altsasuko gazte gu-nea n, 17:00etatik 19:00etara. Interesa duenak 948 239 739 edo 673 329 449 telefonoe-tara hots egin dezake, edo gestion@asociacion-sei.org e-postara idatzi dezake. www.asociacion-sei.org, informazio guztia dago.

Odol-emateak Etxarri Aranatzen: ilbeltzaren 22an, 17:00etatik 20:30etara, www.adona.es/eu.

Aralarko santutegi ondoan dagoen Laguntze-txearen eraikina zahar-

berritzeko proiektuan lagundu nahi duenak ES 2700 754646 93 060 0001691 kontu korron-tean egin dezake ekarpe-na. Mezenazgo Legean jasotako proiektua denez, dirua ematen dutenei errenta aitortpena egitean zati bat bueltatuko diote.

Sakana Trenaren alde AHTrik Ez plataforma-koak asteartero, 19:00etan, elkartzen dira. Bilerak Sakanako herri ezberdinetan txandakatzu egiten dira. Informazio gehiago "Sakana Tren Sozialaren alde" Face-book profilean.

Bidelagun izan nahi? Mintzakide programaren bidez euskara praktika-tzera elkartzen dira hiz-kuntza ikasten ari direnak eta hizketatzeko ohitura dutenak. Euskaldun ba-tekin, bidelagun batekin aritzen dira. Bidelagun izan nahi duzu? 600 482 024 telefonoan edo AE-Kren Itsasi euskaltegian duzu informazio guztia.

www.iragarkilaburak.eus



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo.eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifa: 50,82 € / 96,80 € / 130,68 € prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek %10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.

JAIOTZAK

- **Hegoi Razkin Retegi**, abenduaren 31n Arbizun

EZKONTZAK

- **Iñaki Gastaminza Imaz eta Mirentxu Barrenetxea Gomes**, abenduaren 26an Olaztin

HERIOTZAK

- **Jessica Abigail Chavez Isama**, ilbeltzaren 4an Olaztin
- **Angel Navarro Zudaire**, ilbeltzaren 7an Olaztin
- **Maria Teresa Beraiz Fernandez**, ilbeltzaren 12an Olaztin
- **Maria Carmen Escudero Pascal**, ilbeltzaren 13an Irurtzunen

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXE ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.

- Iragarkiak Guaixe paperean eta guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AGÜ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU **ETXARRI ARANATZ**
Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- ✉ @Grupolrache
- f Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es

Arte garaikidearen uholdea Nafarroan

Uholdeak, mahaira erakusketa mustu dute lortia kultur gunean, arte garaikidea Nafarroan zabaltzeko eta sustatzeko izen bereko programaren barruan. Erakusketa ez ezik, besteak beste, bihar, 17:00etan, Leire Urbeltz artistarekin tailerra izanen da

ALTSASU

Maria Ozcoidi arte komisario nafarrak 17 urte Nafarroatik kanpo pasa ditu. "Banoa, hemen ez dago ezer esaten nuen". Arteaz eta arte garaikideaz ari zen Ozcoidi. Izan ere, Nafarroan ez dira ez Arte Ederretako fakultaterik ez Artearen Historiaren fakultaterik. "Atzera begiratu gabe joan nintzen". Denborarekin Huarte Arte Garaikidearen Zentroa sortu zen, eta "gogoak dau dela" ikusi du Ozcoidik; "ez bakarrik Iruñean". Hortaz, arte garaikidea Uharteko edo Iruñetik "ateratzeko" eta artistak sustatzeko eta ezagutarazteko helburuarekin Uholdeak, mahaira programa martxan jarri dute Huarte Zentroak eta La Caixa fundazioak.

Uharteko Zentrorak komisariotza eskaini zionean Ozcoidik argi izan zuen ez zuela erakusketa bat bakarrik egin nahi. "Erakusketa bat antolatzeke denbora eta dirua behar da, baina gero zer?". Zerbait gehiago behar zutela uste zuen. Programa oso bat. Hortaz, *Uholdeak, mahaira* bere "osotasunean" ulertu behar da. Ozcoidik berak bisita gidatua eskaini zuen erakusketaren mustutze ekitaldian, aurreko ostiralean; bihar, larunbata, Leire Urbeltz ilustratzailearen tailerra egingen dute, eta asteazkenean irakasleek programa hezkuntza baliabide bezala erabiltzeko formakuntza saioa izan zuten. Hilaren 24an, 19:00etan, Maia Villoten arte eszenikoen erakustaldiak amaiera emanen dio programari. Altsasukoa programaren hirugarren geltokia izan da, eta erakusketa otsailaren 2ra arte izanen da lortia kultur guneak erakusketa gelan. Ondoren, Tafallan jarraituko dute arte garaikidea Nafarroatik zabaltzen.

Arte garaikidearen ulertzeko "zertzeladak" eman behar direla esan du Ozcoidik. Artelanak nondik datozen eta erakusketa



'Uholdeak, mahaira' erakusketa mustu zuten lortia kultur gunean.

"ARTE GARAIIKIDEA ULERTZEKO LANAREN ZERTZELADA BATZUK EMAN BEHAR DITUZU"

horretan egotearen arrazoiak azaldu behar dira. Gainera, alde batetik komisarioaren iritzia dago, "artelanei hitz egiten dudanean artistaren informazioa islatzen saiatzen naiz, baita nire pentsatzeko prozesuaz ere". *Uholdeak, mahaira* erakusketak kolektibotasunari, lurraldeari, desplazatuei eta etxera itzultzeari buruz hitz egiten du.

Iruñera itzuli zenean Ozcoidik ez zekien zer aurkituko zuen. Hainbat artista ezagutzen zituela esan du, aurretik haiekin lan egin duelako. Beraz, horiek gonbidatu zituen programa honetan parte hartzera. Gonbidapen bat izan da. Erakusketan Amaia Molinet, Fermin Jimenez Landa, Greta Alfaro, Leire Urbeltz eta Fermin Diez de Ulzurrun artisten lanak daude.

Arte garaikidea ez dela oso ezaguna esan du Ozcoidik. Gai-

nera, jendeari batzuetan "atzera egiten" diola esan du. "Gure bi-tartekari lana oso garrantzitsua da. Guztiaren zergatia kontatu behar duzu, artearekiko beldur hori kentzeko". Hala ere, aitortzen duenez, "ez da dena" kontatu behar. "Zertzelada batzuk eman behar dira. Interesa edo zalantza sortu behar da". *Uholdeak, mahaira* programarekin arte garaikidea Iruñetik kanpo ezagutaraztea nahi dute: "Nafarroako artistak eta komisarioen prozesuak" eza-gutxera eman nahi dituzte. "Greta Alfaro gogoratzen bazara, primeran. Baina gehiago da ulertzeko pentsatzeko beste modu batzuk daudela, artearen bidez egunerokotasuna ikusteko eta islatzeko beste modu bat dagoela".

Nafarroan mahaiaren inguruan "dena" egiteko eta erabakitzeko ohituratik tira egin du Ozcoidik erakusketaren eta programaren haria bilatzeko. "Mahaira" hori lurraldetasunarekin batzen du komisarioak, baita Iruñera itzuli zenean "sentitu" zuenarekin ere. Prozesu luzea izan dela aitortu du: "Egun batean gauza bat pentsatzen nuen, eta beste batean beste ideia bat sortzen zitzaidan".



BAZTERRETIK

IRATI PELLEJERO

Gure betileak luzatzeko eta zaintzeko hainbat aholku

Ia beti itxura bizia eta adierazkorragoa lortu nahi dugu gure begiradan; horretarako, betileak luzeak eta ondulatuak izatea nahi izaten dugu. Merkatuan produktu ugari dago betileak orrazteko, baina betileak naturalki elikatzen laguntzeko gako batzuek ezagutu nahi badituzu, ez galdu hurrengo artikulua hau.

Betileak garbitzea oso garrantzitsua da, bereziki makillajea aplikatu dugunean. Maskarak erabiltzeak betileak gogortu eta erraz hautsi ditzake. **Dieta orekatua edukitzea.** Dieta osasuntsua dugunean eta silizioz aberatsak diren elikagaiak erabiltzen ditugunean, osasunerako hainbat onura ezberdinak izan ditzakegu eta horien artean ilea eta larruazal osasuntsuagoa izatea da. **Burdinazko kizkurgailuak etengabe erabiltzea saihestu.** Burdinazko kizkurgailuak beti-

le luzeak eta makurrak eramaten lagunduko digu. Hala ere, gomen-dagarria da elementu hau neurritz erabiltzea betileak ahalizteko eta apurtzeko joera baitu.

Gure betileak elikatzeke erremedio naturalak: errizino olioia, arbendol olioia eta oliba olioia (Olioen eraginkortasuna ez dago egiaztatua, baina hidratazioa gehitzen du, behatzekin tinta batzuk hartu eta berotuta dagoela behetik gora ipiniko dugu, gau osoa utziz); **baselina** (oftalmologoen ez dute produktu hau balioztatzen, molekula oso handiak ditu eta ez du ezertarako balio); eta **irabiatu bat** (6 azenario, 4 laranjen zukua, ezti, intxaur eta pinazien koilarakada bat eta edateko prest; irabiatu hau oso ona da gorputz osorako).

Erremedio estetikoak: Liftinga edo betile-luzapenak.

Lifting

- Betileak bera luzatzen da zainetik
- 45 minutu
- Naturalagoa
- 6 aste
- Makillajea kentzea normala
- Lifting + Tinte 37 euro

Luzapenak

- Ileak banaka jartzen dira
- 2 ordu
- Bolomena eta luzatu 1D/2D/3D/5D
- 90 egun, ilearen ziklo normala
- Bifasikoa eta olioia ez
- 85 euro jarri eta birjarpena 45 euro



SAIOA 'GAULIUNA'

"Zama arindu" dute

Bosgarren urtez Zama doinuz arindu euskal presoekiko elkartasun jaialdia egin zuten Etxarri Aranatz. Aurtengoa ere arrakastatsua izan dela adierazi dute kontzertuko antolatzaileek. "Doinuz, malkoz, pozez, tristuraz, elkartasunaz eta maitasunaz arindu genuen gehiegi luzatzen den sufrimendua". Azkena izan dela gustura esango zutela gaineratu dute.



Jon Arretxe idazlea 'Mesfidatu hitzez' liburuaren eskuetan duela.

Paris "beltza" erakutsi du Jon Arretxek bere azken eleberrian

Toure detektibearen istorio berri bat kontatu du Arbizun bizi den idazleak 'Mesfidatu hitzez' liburuan

Guaixe / Belexe ARBIZU

Eiffel dorrea, Sena ibai ertzea, Opera... Paris hiriar buruz hitz egiten denean aipatzen diren leku ohikoenak dira. Turistek ikusi nahi dituzten horiek. Jon Arretxek, aldiz, Paris ezezagun bat erakutsi du *Mesfidatu hitzez* eleberrian. Toure Parisera eraman du, baina "nobela beltza" denez, Frantziako hiriburuaren "ezkutuko edo undergrown" hori erakusten du.

Jon Arretxek lehenetik ezagutzen Paris, baina Orfeoi Donostiarrak iazko urte hasieran Parisen haiekin abesteko gonbidapena egin zion, eta bidaia aprobetxatu zuen eleberriarendako dokumentatzeko. Hortaz, Touren hurrengo istorioa bertan kokatuko zuenez, auzoak bisitatzeko aukera izan zuen. "Giro horretan murgildu nintzen eta idei pila atera zitzaizkidan".

Parisko "auzo afrikarrak" dira *Mesfidatu hitzez* eleberrian agertzen direnak. Horregatik, Toure zoriotsu dagoela esan du Arretxek: "Lehenengo aldiz eroso sentitzen da. Gainera, dirua dauka". Bizitza osoa sufritzen pasa du Tourek, Parisera iritsi arte. Hala ere, Arretxeren sagaren protagonistak uste du ez duela egoera horrek "asko iraungo".

Aurreko eleberrian ezagutu zuen Yarelis lagunarekin abiatuko da Parisera Toure, eta hark erakutsiko dio "dirua irabazten": "Yareliz diru-zorroak lapurtzen oso trebea da". Yareliz ere beste arazo batean sartuko du Toure ere, mafia txinatarrak jokoan

sartzen direla. Belleville auzoa "ekialdeko etorkin" asko dauden auzoa da, Txina Town antzeko bat dela azaldu du Arretxek, eta bertan mafiek emakumeen tratak egiten dituzte. "Emakume bat bilatu beharko du Tourek". Hor hasiko da bere bizitza berri politaren gainbehera.

Mesfidatu hitzez liburuari izenburua ematen dion esaldia askotan agertzen da liburuan, izan ere, auzo honetan dagoen hormamargo batean agertzen da. "Toure askotan pasatzen da hortik eta ikusten du. Eta etengabe errepikatzen dio bere buruari ezin dela fidatu".

Crossover

Duela hamar urte argitaratu zuen *Morto Vivace* nobela poliziakoaren protagonistak berreskuratu ditu Arretxek liburu honetan: "Lagun batzuk gomen datu zidaten, azken finean, Toureren alaba Parisen bizi zen, polizia bikote berezi hau ere... elkartzeko eskatu zidaten". Beraz, Toure Martinez eta Perrot poliziekin elkartuko da ere Parisen. "Batzuendako polizia hauek ezagunak izango dira, beste batzuek dako pertsonaia berriak izango dira".

Nobela poliziakoaren eta nobela beltzaren aldeak azaldu ditu Arretxek; poliziakoan protagonistak poliziak eta egiten dituzten ikerketak dira, eta nobela beltzan, aldiz, "kritika sozial gordina" egin behar duela esan du idazleak. "Erritmoa" oso garrantzitsua dela gaineratu du.

Gazteek arte eszenikoak "biziko" dituzte

Gazteei arte eszenikoak "hurbiltzea eta haien protagonista" bihurtzea helburu duen 'Oholtzara salto' programa antolatu dute Etxarri Aranazko, Altsasuko eta Olaztiko udalek. Gaur, 19:00etan, lortian ikasleen dantza ikuskizuna izanen da: *Esclavos felices*

ETXARRI ARANATZ / ALTSASU / OLAZTI
Bigarren urtez Altsasuko, Etxarri Aranazko eta Olaztiko kultur zerbitzuak elkarlanean aritu dira Oholtzara salto programa antolatzeko. "Funtsezkoa" jo du Silvia Marañon Etxarri Aranazko alkateak, hiru udalen izenean, publiko gaztea arte eszenikoetara hurbildu "ahal" izatea, "ematen duten guztiagatik, baita modu parte-hartzailean, esperimentalean eta bizipenez beterik parte hartzen dutelako". Izan ere, programa honetan gazteek sorkuntza prozesuetan "parte hartzen" dute. Antzerki tailerra, antzerki foruma eta dantza erresidentzia egingen dute Etxarri Aranazko Andra Mari ikastolako eta San Donato eskolako, Altsasu BHIko eta Olaztiko Domingo Bados eskolako ikasleek. Dantza erresidentzian sortutako koreografiak gaur, ostirala, 19:00etan, lortia kultur gunean *Esclavos felices* ikuskizunean erakutsiko dute, Dantzaz konpainiarekin batera.

"Lankidetzeta eta parte hartzea" goraipatu nahi izan dituzte udalek. Bai kultur zerbitzuen eta ikastetxeen artean izan den lankidetzeta bai ikasleen artean sustatu nahi duten talde lana eta parte hartzea. *Oholtzara salto*-ren bigarren edizio honetan hiru jarduerak egingen dituzte gazteek: antzerki tailerra Altsasuko institutuan eta Andra Mari ikastolan egingen dena; aurtengo berrikuntza antzerki foruma da eta Olaztiko Domingo Bados ikastetxean eta Etxarri Aranazko Andra Mari ikastolan eta San Donato ikastetxean egingen da, maiatzean. Helburua antzerki sozialaren bidez prebentzioa eta bitartekaritza lantzea da. Hirugarren jarduera dantza erresidentzia da, egunotan Andra Mari ikastolako DBH 4. mailako eta Altsasu institutuko DBH 2. mailako ikasleek egin dutena. Guztira, 100 lagun baino gehiagok parte hartu dute.



Altsasu BHIko Dantza erresidentziaren talde bat, aurkezpenean.

DANTZAZ KONPAINIAKO DANTZARIAK "TELONEROAK" IZANEN DIRA

Fernando Diaz de Ugarte Dantzaz konpainiako zuzendari nagusia da. Bigarren urtez etorri dira konpainiako dantzariak Andra Mari ikastolara eta Altsasu institutura dantza erresidentzia egitera. Diaz de Ugarterendako oso garrantzitsua da programa antolatzeko egon den "lankidetzeta", izan ere, konpainiaren erresidentziaren "sortze prozesuan" ere oso garrantzitsua da "talde lana".

Astelehenean hasi zen dantza erresidentzia eta astean zehar egindako saioetan talde bakoitzak "sorkuntza koreografiko" bat egin du Dantzaz konpainiako dantzarien laguntzarekin. "Ez da ikaragarritzko sorkuntza koreografikoa izanen, baina ikasleek sortutakoa izanen da". Hortaz, gazteek sortuko dituzte mugimenduak, ideiak, musikak, jantziak, atrezzoak... "Bost ordu horietan ematen duena". Ikasleek

erabili duten abiapuntua konpainiak erabili duen berbera da: esklabo alaiak. "Zenbateraino gara askeak eta zenbateraino esklaboak aztertuko dute. Baita alaitasun edo zoriontasun hori zer nolakoa den ere".

Arteak hezkuntzan duen garrantziaz hausnartu du Diaz de Ugartek, eta ikastetxeetan egiten dituzten erresidentzietan lantzen duten ezagutzak arlo desberdinetan "jarraipena" izan dezakeela aipatu du: "Argi dugu arte eszenikoak eta arteak erabateko beharra dutela hezkuntza prozesuetan, eta sorkuntza prozesuek ikaragarritzko laguntza eman diezaiokete hezkuntza prozesuak egiteko".

"Normalean protagonistak gara. Baina kasu honetan gu teloneroak izanen gara; protagonistak haiek izanen dira". Gaur, 19:00etan, lortia kultur gunean erresidentzia sortutako koreografiak mustuko dituzte ikasleek. Goizean entsegu orokorra egingen dute ikaskideek ikusi ahal izateko, eta arratsaldean emanaldia izanen da. Dantzaz konpainiak bi koreografia egingen ditu eta ikasle talde bakoitzak bat; guztira zazpi koreografia ikusi ahaliko dira *Esclavos felices* ikuskizunean.

11 GALDERA



Ricardo Areta eta Joxe Alegria lehenengo planoan, danborradaren entsegu batean.

"Etxeko danborrekin egin genuen hasierakoa"

1990an egin zuten lehenengo aldiz Danborrada Lakuntzan. Ilbeltzaren 19an, 00:00etan, "beti" Sansaastin bezperan patroia "hartzeko" danborrak jotzen dituzte. Ricardo Areta eta Joxe Alegria sortzaileetako bi izan ziren

Erkuden Ruiz Barroso LAKUNTZA

1 Danborradak 30 urte beteko ditu. Nola sortu zenuten?

Ricardo. Lagun kuadrilla baten gauza izan zen. Ni bateria jolea nintzen eta danbor pila bat nituen, lagunek esaten zidaten danborrak atera behar nituela danborrada bat egiteko. Ezetz esaten nuen. Azkenean, animatu

nintzen. Etxeko danborrak, tin-balak eta abar hartu eta horrela egin genuen lehenengoa. Danborrak ez ezik, txapakumearekin koilarak eta sarde handiak egin genituen.

2 Zenbat lagun zineten?

R. Ez dakit... dozena erdia? Baina jotzeko gogo handiak genituen. Danborradarekin hasi

aurretik egun honetan ez zegoen ezer ez. Pentsatu genuen bezpera eguna berreskuratu behar genuela. Eta horixe berreskuratu genuela!

3 Hasieratik sukaldariz jantzen zarete?

R. Lehenengo aldi horretan guztiak zuriz jantzi ginen eta sanferminetako gerrikoa gorputzean

gurutzatuta Sansaastin omenez. Martiri bat zen eta detaile bezala jarri genuen. Sukaldari txanoa ere jarri genuen, paperezkoa.

Joxe. Ez genuen asko pentsatu. Galdetu genuen, zer jantziko dugu denak berdina joateko? Zuria eta mandala.

4 Ondoren, Lakuntzako Pertza elkartearen ekimena izatera pasa zen.

R. Elkarteko presidenteak urtero aldatzen dira eta haietako batek esan zidan danborrada hori elkartera joan behar zela. Baldintza batzuk eskatu nizkion: entseatzeko leku baten bila nongoen. Danborrak eskatu nizkion ere. Lekuari baietz esan zion eta elkartarekin hasi ginen. Sartzan zen bakoitzari danborrak eskatzen genizkion, eta azkenean batek baietz esan zuen.

5 Edonork parte har dezake?

J. Danborrada elkartearen gauza bat da, baina ez da beharrezkoa kide izatea parte hartzeko. Lakuntzar gehienak dira bazkide, baina edozeinek parte har dezake.

R. Mistoa da. 9 urtetatik 90 urteko jendea hartzen dugu.

6 Zer melodia jotzen dituzue? Eta nola lortu zenituzten?

R. Nik atera n ituen. Orain gehiago ditugu, baina Donostiakoak egiten ditugu. Orain sei abesti jotzen ditugu. Abesti propiorik ez dugu.

7 Hiru hamarkada hauetan danborrada asko aldatu da?

J. Aldaketa gutxi egon dira. Adineko jende gutxiago etortzen da eta pala eta sarde horietatik, orain bakarra ateratzen dugu.

8 Noiz hasi zineten Ohorezko txanoa ematen?

R. Hasierako urteetan herritik buelta bat egiten genuen eta ni beti nongoen herriko pertsona nabarmenei Ohorezko txanoa entregatu behar genuela esaten. 1997an elurte handi bat izan zen eta ezin genuenez bueltarik eman, Ohorezko txanoa entregatzea zer iruditzen zitzaion galdetu nion orduko presidenteari. Eta horrela hasi zen. Kirolariei, ofizioetako langileei, kanapi-joleei... jendea askori eman diogu. Eta herritarrek ilusioa izan ohi dute.

9 Honaino iristea espero zenuten?

J. Ez dakit. Hasiera guztiak bezala ikusten genuen. Izan ditu urte batzuk parte hartzea pixka bat jaitsi dena, baina, bueno, 70etik ez gara jaitsi. Urte batzuetan 100dik gora izan gara.

10 Nola ikusten duzue etorkizuneari?

J. Kolpetxoren bat gehiago joko dugu. Baina adinak ez du barkatzen. Ni egon nintzen zuzendari bezala bost edo sei urte, baina kanta berriak sartu zirenean Ricardori pasa nion ardura. Orain musikari asko dago herrian eta gazteren bat zuzendari izan nahi duen begiratzen ari gara.

11 Eta nola da danborrada bat zuzentzea?

J. Jende asko kontrolatu behar duzu. Aurrean haurrak daude eta batzuetan haria galtzen dute, gurasoak sartzen dira... eta atzean afaritik atera diren oso girotuta dagoen jendea. Urduritasun pixka bat bai sentitzen duzu. Bestela, ez da ezer. Orain danbor bat naiz. Berez jendeak ez du zuzendari izan nahi.

Herriko jaiak alaitu gurekin!

Kartelak / Egitarauak / Eskuorriak

Foru plaza, 23-1. Altsasu | 948 564 275 | 948 562 107 - gk@gkomunikazioa.eus

